

Kultura

Nazioarteko kaleko hamar musika banda lehiatuko dira gaur, bihar eta etzi, Zornotzako XI. Haizetara lehiaketan. > 11



JAIK!

**ATXONDO
BERRIZ**

Durangaldeko baserritar gazteen uzta berria

Durangaldean baserritar gazteen belaunaldi berri bat loratu da. Bestelako bizimodu baten aldeko apustua egin, eta elikadura ereduan eragiteko asmoz datoz. Bertakoak dira, eta sasoiko daude. > 2-3



Errefuxiatuen aldeko plataforma sortzeko hitzordua jarri dute Durangon

Errefuxiatuen aldeko plataforma martxan ipintzeko hitzordua jarri dute ekainaren 28an, 19:00etan, Pinondon. Andreak elkarte feministak egin du deialdia, joan zen astean gai honen inguruan antolatu zuen berbaldian gaia azaleratu eta gero. "Errefuxiatuek bizi duten dramarekin sentsibilizatutako pertsona guztiok animatzen zaituztegu parte hartzera". > 6

"Argentinan oso inportantea izan zen niretzat euskara ez galtzea" > 8

Ignacio Unzueta | 16 urte gaz Argentina joan zen



**OLA
JAUREGI**

Kurutziaga kalea, 52 Durango
Tel.: 94 620 08 64
info@olajauregi.com
www.olajauregi.com



Berriz > 5

Plataformak Berriz Susaren dokumentazioa eskatu du

Abadiño > 8

Al-k eta EAJk Kaleartean-en mozioaren kontra egin dute

Iurreta > 9

Elkarteek berdintasuna eta genero ikuskera landuko dute

Durango > 4

Minbiziaren kontrako Egun Solidarioa Tabirako jaietan



Eñaut Gallastegi
Mallabia
(1991)

“Posible da honetatik bizitzea, baina gauzak aldatzen ez badira, gero eta zailagoa izango da”

Zelan doa gaztak egiteko esperientzia?

Orain dela 7-8 urte hasi nintzen, DBH amaitu eta gero. Esperientzia gogorra da, eta oraindik emaitza handirik ez da ikusten, prozesu luzea delako. Ez da berdina gurasoen erreleboa hartzea, edo nire moduan, hiru lau behi edukita hastera. Baina lana gustatzen zait, eta hori da saririk onena.

Zenbat gazta ekoizten dituzu? Eta zelan saltzen dituzu?

240 bat ardi ditugu. Esnea ere saltzen dugu, baina gehienbat gazta saltzen dugu. 1.500 kilo egiten ditugu urtean, eta 3.000 edo 4.000 kilora heltzeko asmoa dugu. Izan ere, orain ama ere badabil nigaz, eta egungoak ez digu soldata birako ematen. Ahal den gazta kopururik handiena etxean saltzen dugu, Trabakuan, eta denda batzuetan ere saltzen ditugu banaka batzuk. Azoka batzuetara ere joaten naiz.

Uste duzu posible dela lan honetatik bizitzea?

Posible da, baina gauzak aldatzen ez badira, gero eta zailagoa izango da. Industriak lurrik uzten ez badigu, eta udalek eta Eusko Jaurlaritzak lurra zapaldu eta zapaldu segitzen badute... Durangaldea ikusi besterik ez dago, dena industria da.



Kepa Agirregoikoa
Etxano, Zornotza
(1990)

“Bertako produktu freskoa oso gutxi dago, eta plazetan jendeak hori asko eskatzen du”

Etiketetik datorkizu sena, ezta?

Txikitatik eduki dut argi. Aititak eta amamak esnea saltzen zuten, eta txikitako akordu hori daukat. Aitak okelarako behiak ipini zituen gero, batez ere inguruko landetako belarra jateko. Niri gogoa sartu zitzaidanean, okelarako behiekin ez zegoen aurrera egiterik. Horregatik, berriro esnea ekoizten hasi nintzen, eta gero, gazta, gazta fres-

koa eta jogurtak. Oso pozik nago, beti gura izan dudana egiten nabilelako.

Zein bide darabilzu salmentarako?

Salmenta zuzena egiten dut, etxean eta plazetan. Bertako produktu freskoa oso gutxi dago, eta Durangoko eta Gernikako plazetan jendeak asko eskatzen du. Urtean 2.000-2.500 kilo egiten ditut behi-esneagaz, eta ahuntzare-nagaz beste hainbeste. Ahuntz-gazta orain modan dago, koipe gutxiagokoa eta osasuntsuagoa dela diote. Nire ustez, gauza desberdinak egitea eta bezeroari entzutea da gazteok dugun giltza.

Eneko Atxaren Azurmendiko menuan zure gazta sartu dute. Pozik?

Bai. Gazta erdi ondua hartzen dute, behiarena eta ahuntzarena. Atxak oihartzuna eman ahal dizu, baina nik berdin-berdin eskertzen ditut bera zein plazara datorren bezeroa.

“Kalitatea, gertutasuna eta konfiantza lako balioak apur bat berreskuratzen dabilta”

Kike, badirudi jendea elikatzeke moduz gehiago arduratzen hasi dela...

Jendearen ohiturak aldatzen doaz, eta epe ertain edo luzera, etorkizuna bada goela esango nuke. Kalitatea, gertutasuna eta konfiantza lako balioak apur bat berreskuratzen dabilta.

Zelakoa da zure proiektua?

Bazkide bi gara, Iker Garcia berangoztarra eta biok. Unibertsitatean, Nekazaritzako Ingeniaritza Teknikoa ikasi genuen, eta han sortu zitzaigun ortu ekologikorako eta gauzak aldatzeko grina. Lur bat hartzea gauza oso zaila da gaur egun gazteentzat, eta ekonomia lokala ere bultzatu beharko litza-teke. Gu Lezaman hasi ginen ortu txiki



Kike Bilbao
Atxondo
(1986)

bategaz, duela hiru bat urte. Izan ere, han lur bat utzi ziguten. Gero, ondoko baserri eta lur bat alokairuan hartu genuen, eta negutegi batzuk ere bai. Iaztik, familiako lur batzuk lantzen ere hasi nintzen Apatan. Gure beharra prekariora da, baina egindakoa, behintzat, guretzat da. Edozelan ere, poztasuna ez dugu dirutan soilik ikusten.

Otzarak, plazak... Nora jotzen duzue?
Durangaldean eta Uribe Kostan banatzen ditugu ortuariak, otzaretan, 30 inguru. Gainera, astelehenetan Apatan egoten gara, eta zapatuetan Durangoko plazara joaten ere hasiko gara.

“Soloan hasi eta aste bira hamazortzi otzara bete ortuari lotuta neuzkan”

Gernikarra zara izatez, eta Muxikan daukazu ortua.

Bai. Orain dela hiru urte hasi nintzen. Betidanik gustatu izan zaizkit lurra eta animaliak. Amama soloan ikusita, osaba ere fruta arbolekin... Baso eta lorezaintzako ikasketak egin nituen, eta lorategi batean lanean egon ostean, ortuan probatzea erabaki nuen. Tarra-gonan (Herrialde katalanak) ikastaro bat egin nuen, eta horrela ekin nion. EHNE sindikatukoek asko lagundu zidaten, lurra bisitatzen adibidez.

Otzarak bete ortuari saltzen dituzu...
Soloan hasi eta aste bira hamazortzi otzara bete ortuari lotuta neuzkan. Hogei familia dauzkate bezero, denak Ger-



Amets Elgezabal
Atxondo
(1984)

nika ingurukoak. Bi zatitan banatzen dut, jeneroa pilatu eta piperrak-eta bigundu egiten zirelako. Astelehenetan Astra fabrika sozialean hamar pol-tsa uzten ditut, eta eguenetan etxerik etxe banatzen ditut beste hamarrak. Badago honetatik tiratzerik: jendeak otzarak eskatzen ditu, Gernikan ere jantokietan bertako produktuak sar-tzen hasiko dira... Bizimodu bat da.

Mutilak dira baserriar gehienak?

Neska izan arren, berdin-berdin egin ahal da. Egia da gehienak mutilak di-rela, baina neskak ere animatzen ditut probatzera.



Andoni Jaio
Lurreta
(1994)

“Iaz 2.300 gazta egin genituen, eta aurten 4.000ra ailegatuko gara”

Lurretako Garaizar auzoan duzue gazta produkzioa. Zerk eraman zintuen lan honetara?

Gorka anaia hasi zen ideiaz. Artzain eskolara joan, eta proiektuari ekin zion. Nire asmoa ikasten jarraitzea zen, baina batxilergoan nengoela eba-kuntza bat egin zidaten, eta etxean egon nintzen bolada batez. Anaiari la-guntzen hasi eta azkenean neuk jarrai-

tu nuen gazta egiten. Bera ardien arduragaz geratu zen. Orain hiru anaiak gara bazkide. Iaz 2.300 gazte egin genituen, eta aurten 4.000ra ailegatuko gara. Guztira ia 300 ardi dauzkagu.

Lurretako azokan saltzen duzue gazta, eguenetan.

Bai, eta ekainetik abendura bitartean Gernikako plazan egoten gara saltzen, hileko lehenengo zapatuetan. Eroskiren Bizkaiko Hiper saltokietan ere asko saltzen dugu, eta denda batzuetan ere bai.

Lan honegaz bizimodua ateratzea posible dela uste duzu?

Bai. Baina, nire ustez, hain proiektu handia baino, hobe da zerbait txikiagoa egitea. 100 ardigaz eta gazta batzuk eginda, esku gutxigaz, hobeto eta tran-kilago. Lan polita da, baina asko gusta-tzea beharrezkoa da.



Aitor Urien
Abadiño
(1992)

“Oso gustura nabil; ez dut sekula lan bat moduan hartu, bizimodu bat da”

Ez al da lan nekeza?

Oso gustura nabil; ez dut sekula lan bat moduan hartu, bizimodu bat da. Egutegia lan egin behar dudala? Bai, baina egun batzuetan gehiago eta besteetan gutxiago, eta oporrak hartzeko aitagaz konpontzen naiz. Zortea eduki dut lurrekin, eta aukera daukanak aprobe-txa dezala. Lurrekin dagoen ne-gozioagaz, zerotik hastera ez da erraza.

Zelan murgildu zinen?

Birraitita eta aitita artzainak izan ziren, eta aitak ere, fabrikara bajatu arren, beti eduki du artaldetxo. DBH amaitzean Fraisorora joan nintzen, abeltzaintzako erdi mailako gradua egitera, bi urtez. Handik Arantzazura joan nintzen, artzain eskolara. 2011n amaitu nuen, eta ostean lanari ekin nion; etxean obra batzuk egin nituen, gaztategiarena, adibidez.

Zelan antolatzen zara?

300 bat ardi dauzkate, eta dozena bat behi ere bai. Ardiak egutegia ateratzen ditugu landara, etxeko belarra ematen diegu jaten, eta ahalik eta pentsurik naturalena ematen saiatzen naiz. 2.000 kilo gazta saltzen ditut, eta esnea ere nahikotxo. Ekoizpena handitu gura dut, astiro-astiro. Gehienbat etxetik saltzen dut, eta denda eta azoka batzuetan ere bai.

Errefuxiatuen aldeko plataforma bat sortu gura dute Durangon

Andereak elkarteak egin die deialdia herritarrei, ekainaren 28rako

DURANGALDEA M. Onaindia
Ekainak 28, 19:00etan, Pinondo etxean. Horixe da Durangon

errefuxiatuen aldeko platafor-
ma sortzeko ipini duten hitzor-
dua. Andereak elkarte feminis-

tak egin du deialdia, joan zen
asteen burututako berbaldi
batean ideia azaleratu eta gero.



Joan zen astean Idomeniko egoera ezagutu zuten berbaldian, eta bertan sortu zen plataformaren ideia. M. Barrena

Joan zen astean *Ongi Etorri Errefuxiatuak* taldekoek Idomeniko (Grezia) esperientzia kontatzeko berbaldia eskaini zuten Durangon, eta herrian gaiagaz kezka dagoela ikusi dute Andereak elkarteak: “Durangoko zenbait elkarte eta norbanakok agertutako errefuxiatuengana interesak eragin digu Andereak elkartekooi datorren asteko bilera deitzea, eta errefuxiatuek bizi duten dramarekin sentsibilizaturik zaudeten pertsona guztiok animatzen zaituztegu parte hartzera”.

Udaletxean, bandera

Durangoko Udaleko alderdiek aho batez onartu zuten errefuxiatuen aldeko adierazpena, astelehenean, Errefuxiatuen Nazioarteko Egunaren harira. Besteak beste, Espainiako Gobernuari 15.000 errefuxiatu jasotzeko konpromisoa betetzea eskatu diote.

Gainera, udaletxeko bal-
koian errefuxiatuen aldeko ban-
dera eskegi dute.

Durango Fashion Gauerako modelo bila

DURANGO M.O.

Irailean Durango Fashion Gaua egingo da, lehenengoz, Dendak Bai elkartearen esku-
tik. Herriko komertzioen udaz-
ken eta neguko arropak bistar-
ratzeko aukera bat izango da
desfile hori, eta pasarelarako
modeloak behar dituzte. Horre-
gatik, ekainaren 30ean castin-
ga egingo dute prest agertzen
diren hautagaiekin.

Gizon eta emakumeei deia
Dendak Bai merkatarik elkar-
tik azaldu dutenez, adin guztie-
tako gizon eta emakumeek par-
te hartu dezakete castingean,
baita umee ere.

Hilaren 30ean izango da cas-
tingerako hitzordua, 17:00etan,
Saibigain kaleko 10. zenbakiko
bulegoan (Maristak ikastetxea-
ren ondoan).

Tabirako jaietako Egun Solidarioa minbizia ikerketak laguntzeko

Bihar jendetza batuko da Tabirako jaietako marmitako txapelketan

DURANGO Markel Onaindia
Asteburuan San Pedro jaiak
ospatuko dituzte Tabiran, eta
aurten elkartasunez beteta da-
toz, gainera. Izan ere, domeka-
koa Egun Solidarioa izango da,

Gurutzetako ospitalean haur
minbizia ikertzeko proiektuen
aldekora. La Cuadri del Hospita-
l raso taldeak informazio mahaia
ipiniko du, eta euren errifa ere
salduko dute.

Jaiak gaur hasiko dira,
15:00etako bazkariagaz. Gero,
txupinazoa, dantzak, errome-
ria... Ekitaldi sortak bihar ja-
rraituko du, eta marmitako
txapelketak jendetza batuko du.

Sorginolan, Fundifest

Bestalde, Tabiran bertan, Sor-
ginola gaztetxearen lehen ur-
temuga ere ospatuko dute Fun-
difest jaialdiagaz. Txupinazoa
botako dute gaur, 18:00etan,
eta gero antzerkiaren txanda
etorriko da. Bihar jaietako mar-
mitakoagaz bat egingo dute, eta
gauez kontzertuak eskainiko
dituzte: Kohatu, Monckday, Ane-
guria eta Djak. 26an abentura jo-
lasak egongo dira, eta 27an gazte
bazkaria eta mahai-ingurua
Fundifeseke behargin ohiekin.



Bihar marmitako txapelketa egingo dute Tabiran.

Abouren familiari laguntza emango diote durangarrek

Maiatzaren 20an hil zen Abou Sakho senegaldarra

DURANGO M.O.

Joan zen maiatzaren 20an Abou
Sakho hil zen, Durangon bizi
zen senegaldarra. 2007an heldu
zen bertara, eta, geroztik, har-
tueman sendoak egin zituen
hainbat lagunekin. Gaixotasun
baten ondorioz hil zen Abou, eta
maiatz amaieran sorterrira era-
man zuten bere lagunak. Asegu-
rua ez zen aberriratzearen gas-
tuen kargu egin, eta, hori dela
eta, dirua batzeko kanpaina bat
hasi zuten.

Domeka honetan, Andra
Marin egingo den trukerako eta
bigarren eskuko produktuen
salmentarako azokan egongo
dira postu bateagaz. Baina, ha-
sierako helburua aldatu egin
da. Izan ere, dagoeneko lortu
dute aberriratzeari ordaintzeko

dirua; Oihane Alakano lagunak
esan du lehen momentuan fami-
lia batek ordaindu zuela, eta da-
goeneko bueltatu dietela dirua.
Ondorioz, domekan ateratzen
duten dirua Abouren familiari
laguntzeko izango da, bere lo-
bak ere gaixotasun bera baitau-
ka, Alakanoren esanetan.

Abouren lagunak arropak
eta beste zenbait produktu ipi-
niko dituzte salgai, domeka goi-
zean burutuko den azokan.

Arropa eta beste zenbait
produktu ipiniko dituzte
salgai, domeka goizean
burutuko den azokan

EKAINEKO SARIAK

Anbotoren lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
Tel.: 946 816 558

HITZ LIBURU-DENDA.
LIBURUA ETA CDa
Patrick Modianoren
“Villa Triste”
liburua eta Pirritx,
Porrotx eta
Marimototsen
“Amalur” CDa.

hitz

AKEBASO.
MENUA
Bi lagunendako
aste bitarteko
menu exekutiboa.

akebaso

BAGOAZ BIDAIAK.
NEKAZAL ETXEA-SPA
Durangaldetik ordu eta
erdira dagoen nekazal
etxe batean egonaldia.
Zapatutik domekara.
Gosaria eta spa saio
bat barne.

BAGOAZ BIDAIAK

UNAMUNZAGA HORTZ-KLINIKA.
ESKUILA ELEKTRIKOA
Hortzetako eskuila
elektrikoa PC800
sensitive ORAL-B.

UNAMUNZAGA HORTZ-KLINIKA

SALTAN KATERIN.
MENUA
Bi lagunendako
aste bitarteko
menua.

SALTAN KATERIN

ABANTAILAK

- Deskontuak Durangaldeko zein eskualdez kanpoko hainbat saltokitan.
- Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labur ordainduetan eta eskeletan.
- Hilero egingo diren zozketetan parte hartzea.
- Durangaldeko egutegia eta turismo-gida opari.

Plataformako kideak esleipen prozesuko dokumentazio eske

Berriz Susaren esleipen prozesuari buruzko dokumentazioa eskatu dute



Berriz 1,8m + Zergatik? plataformako kideak udaletxera eskaera egitera joan aurretik.

BERRIZ M. Zuazubiskar
Duela hilabete inguru sortu zen Berriz 1,8m + Zergatik? plataformako kideek Berriz Susa sozietatearen esleipen prozesuari buruzko dokumentazioa eskatu dute, asteon, udaletxean.

Plataformako kideek ondo-rengo dokumentu hauen kopiak eskatu dituzte: 1999an Berrizko Udalak Susa sortzea erabaki zuen plenoko akta, Abaroa S.A.-ren alde 2003an egindako esleipen-proposamena eta esleipen akordioaren akta, esleipen honen errekurtsoan Susak egin zituen batzar guztien aktak, Susak egindako esleipena onartzeko Berrizko Udalak erabili zituen txosten juridikoa eta teknikoak, Susaren eta Berrizko Udalaren arteko harreman ekonomikoa zehazten duen txostena...

Berriz Zergatik? plataformako kideek adierazi dute ez dabiltzala “inoren kontra”, eta herriarentzat “justua” dena defendatzen dutela.

Sinadura bilketa

Bestalde, Berriz Zergatik? plataformako kideek aurrera darraite duela aste batzuk hasitako sinadura bilketarekin. Dagoneko 800 sinadura inguru batu dituztela adierazi dute. Horrez gain, sinadura bilketarekin jarraituko dutela eta adin nagusikoa den edozein herritarrek sinatzeko aukera duela adierazi dute.

Horrez gainera, hurrengo asteko eguaztenean batzarra egingo dute, 20:00etan, eta bertaratzeko deia egin diete berriztarrei.

Kainaberako kide bi Grezian egon dira, errefuxiatuei laguntzen

Escribano erizaina eta Agiriano medikua Chios irlan egon dira bi astez

ELORRIO Markel Onaindia
“Errefuxiatuen egoera gogorra eta dramatiko da”. Sentsazio hori dakarte Greziako Chios irlatik Inma Escribano eta Iñaki Agiriano Kainaberako kideek. Itsas Salbamentu Humanitarioagaz joan dira laguntzen.

Agiriano medikua da, eta Escribano erizaina. Errefuxia-

tuei lehen arreta ematen ibili dira, eta gainera, kanpamentuetatik ospitaleetara anbulantzian eramaten ere egin dute lan. Aste biko txanda egin dute; muga hori dago, eragin fisiko eta psikiko posibleak saihesteko. Errefuxiatuen hiru kanpamentu daude Chiosen. “Ez dute irlatik irteteko aukerarik, Turkiara buelta-

tzeko ez bada. Guztira, 2.500 bat errefuxiatu egongo dira”.

Euregaz batera, gobernu kanpoko beste hainbat erakunde (GKE) daude han, baina euren lako GKE txikiak “ondo funtzionatzen dutenak” direla esan dute: “Ez da galtzen denborarik eta baliabiderik, ezta dirurik ere paperak betetzen”.



Chios irlara ailegatzeko izan diren errefuxiatuei lehen arreta eman diete elorriarrek.

Azoka Kulturala, udako egitarau zabala hasteko

ELORRIO M.O.

Elorrioko plazaren bueltan XVI. Azoka Kulturala egingo da bihar, ekainak 25, eta horrela, udarako antolatutako egitarau zabala hasiko da herrian. Goizetik eguerdira bitartean, auto eta moto zaharren erakusketa eta antigoaleko bildumen salmenta eskainiko dute.

Udaletxepean eta elizpean ipiniko dituzte filateliako bildumak, liburu eta disko zaharrak, eta antzerako beste hainbat gauza. Auto eta moto zaharrak plazan bertan egongo dira, eta Agustin Urizar antolatzaileak esan du gutxienez 30 bat auto ipiniko direla ikusgai.

Elorrioko Udak

Udalak antolatutako egitarauaren baitan, uztailearen 4ko Berrio-Otxoa eguna edota Musikaire jaialdia daude. Turismoari ere garrantzia emango diote udan, eta www.elorrioturismo.eus webgunea martxan ipiniko dute informazioa errazteko asmoz.

70 umek hartuko dute parte udalekuetan

MALLABIA J. Guenetxea

4 eta 14 urte arteko 70 ume eta gaztek hartuko dute parte Mallabiko udalekuetan hurrengo asteetan. Ekainaren 27tik uztailearen 15era antolatuko dituzte Satxibu elkarteak kideek udalekuak. Ordutegia astelehenetik ostiralera, 09:30etik 13:00etara izango da. Udale-

Ekainaren 27tik uztailearen 15era, hiru astez antolatuko dituzte Mallabiko udalekuak

kuek irauten duten hiru asteetan umeek hainbat ekintzatan parte hartzeko aukera izango dutela jakitera eman dute antolatzaileek. Eguenetan Berrizko igerilekuetara eta Basondora irteerak aurreikusi dituztela aurreratu du Satxibu elkarteak Maider Gisasolak. Gainerako egunetan Mallabia inguruan ibiliko dira.

ALBERDI HARATEGIA

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658
SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722

Egin zaitez Anbotoren Lagun, eta atera etekina txartelari!

Babestu proiektua urtean 30 euroren truke,
eta gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:

DESKONTU BEREZIAK



A-METZ DEKORAZIOA

> -%20 proiektuan, udaleko legalizazioetan
eta irekiera proiektuan.



BETIXU JATETXEA

> - %10 asteburuko otorduetan eta kartan,
ostiral eta larunbat gauetan.



COLOR PLUS

> -%10 tinta- eta toner- kartutxo
bateragarrietan.
> -%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.



EPOCA SUKALDEAK

> -%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.



EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

> -%10 sarreraren deskontua museoko eta plane-
tarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio
duen sarrera konbinatuan ere.



GIMNASIO ZIRKIN

> Bazkide berriei matrikulazioa doan.
> Bazkide direnei 10 sesioko solarium
bonoa doan.



GONZALO MANCISIDOR BITXI-DENDA

> -% 5 produktu guztietan.



HITZ LIBURU-DENDA

> -%10 euskarazko liburuetan.



HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

> -%15 sarreran.



ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

> -%5 lehenengo erosketan.
> -%10 erosten den bigarren arropan.



IURRETA KOPISTEGIA

> -% 10 eskola eta bulego materialean.
> -%5 musika, opari eta liburuetan.



KATXARRO JATETXEA

> - %10 asteburueta menuetan.



KIROL ERROTA GIMNASIOA

> Bazkide berriei matrikulazioa doan.



LANDAKO OPTIKA

> -%15 eguzkitako betaurrekoetan,
audiologian, ikusmen urritasunean,
eta armazoi eta lenteetan.



NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

> -% 10 Dippner oinetakoetan.
> -% 15 Euskal Herriko produktu
ekologikoetan.



OPEN KLUB

> -%20ko deskontua matrikulan. Ez da
bateragarria beste eskaintza batzuekin.



PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

> Bosgarren gosaria doan.
> Plateruenak antolatutako ekitaldietan
leihatilan erositako bigarren sarrera doan.



UNAMUNZAGA ETXEBARRIA HORTZ-KLINIKA

> Azterketa eta bi erradiografiak doan.



UNDARRI BIKE

> -%10 ski eta snow materialen
mantentze-lanetan: zolari argizaria eman
eta ertzak zorroztu.
> -%10 bizikletako osagarrietan.



URRIKE LIBURU-DENDA

> -%5 liburuetan.
> -% 10 papergintzan.



UR URDAIBAI

> -%25 Anbotoren Lagunarentzat eta horren
lagun batentzat Urdaibaiko itsasadarren
jaitsieran, piraguan edo stand up paddle-ean.



Anbotoren lagunak

Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
946 816 558

f Anboto komunikabideak

@anboto



Behargintza Durangaldeko Amankomunazgoak bultzatutako zerbitzua da.

Behargintzaren aholkularitzagaz 74 enpresa berri sortu dituzte

Ekintzaileek bultzatutako enpresa hauek 104 lanpostu sortu zituzten 2015ean

DURANGALDEA J.G.

Durangaldeko Amankomunazgoak enpresa berriak sortu gura dituzten ekintzaileentzako aholkularitza zerbitzua eskaintzen du. Izan ere, negozio bat zabaltzerakoan, aurrean handia egin beharra dago. Ekintzai-

leak, jardun gura duen sektorea ezagutzeaz gainera, kudeaketa eta administrazio irizpideak ere izan behar ditu. Hasierako pauso horiek guztiak errazago eman ahal izateko, Behargintza bidelagun izan dute aurtan 158 ekintzailek. Aholkularitza jaso

duten pertsonen artean, parekotasuna dago gizonezko eta emakumezkoen kopuruen artean. Amankomunazgoko arduradunek emandako datuen arabera, "etorri diren ekintzailerik gehienak langabezian egon dira". Beraz, lanik aurkitu ezean,

ekintzailertza aukera bat izan daiteke. Beren negozioa zabaltzeko egiten dutenen kontsulta kopurua gorantz doa urtero. Batez ere, 25-35 urte bitarteko pertsonak izan dira, eta gehienak goi mailako lanbide heziketa edo pareko ikasketak izan dituzte. Beraz, formaziodun gazteak dira erronka berriak martxan ipintzeko ilusioa dutenak.

Enpresak sortzen

2015ean aholkularitza zerbitzua jaso duten ekintzaileek 74 enpresa jarri dituzte martxan. Gehienek merkataritza arloagaz zerikusia izan dute. 25 enpresak pertsonen zuzendutako zerbitzuak eskaintzen dituzte, eta 26k merkataritza arloan. Horrela, enpresa hauek guztiek 104 enplegu sortu dituzte.

Enpresa hauen izaera juridikoari dagokionez, hautu nagusia autonomoarena da. 61 enpresak (%82) autonomo moduan ekin diote beraiei jarduerari.

Aholkularitza

Amankomunazgoak prestakuntza-ekintzen bidez eskaini die aholkularitza zerbitzua ekin-

tzaileei. 2015ean, ekimen honetan 55 ekintzailek eta 7 enpresak hartu dute parte.

Ekintzaileentzako bitaminak deitzen diren 5 jardunaldietan, berriz, 36 pertsonak hartu dute parte.

158

ekintzailerik aholkularitza zerbitzua eskaini zien Amankomunazgoak 2015. urtean

Jar zaitez martxan

Gazteen artean ekintzailertasuna bultzatzeko Jar Zaitez Martxan programa ere bultzatu du Amankomunazgoak. Iaz, 13 proiekturi eskaini zien aholkularitza beren jarduerara martxan jartzeko. 25 enpresak prestakuntza jaso zuten beraiei jarduerara merkatuan finkatzeko. Ildo horretatik, 23 enpresak dirulaguntza jaso dute bazkideen Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko.



Alex Lasagabaster eta Katia Ortueta

42 urte · Durango
35 urte · Durango
Croqueta y Presumida
zabaldu dute

2015eko urrian Croqueta y Presumida denda zabaldu zuen Durangon. Behargintzaren aholkularitza jaso zuten.

Zertan jarduten du zuen enpresak?

Kroketak eta artisau eran prestatutako janaria saltzen dugu. 14 kroketak barietate eta 25 plater saltzen ditugu.

Zein izan da orain arte izan duen lorpenik handiena?


Kalitate handiko kroketak eta prestatutako janaria erreferente izatea Durangon. Geroztik eta gehiago ezagutzen gaituzte. Garrantzitsuenak da bezeroek errepikatu egiten dutela.

Enpresa zabaltzeko zeintzuk izan dira zailtasunik handienak?

Bezero guztiak asebetetzea izan dugu helburu. Horretarako, ahalegin handia egin dugu barietateak aldatzeko, bezeroen gustuen arabera. Era berean, kaxetan kroketak aurkezteko modua ere aldatu egin dugu, kroketak zelan kokatuta dauden zehazten duen orritxo bat sartuz.

Badago Alde Zaharreko denda handitzeko aukerarik?

Bai. Gaur egun ostalaritzara zabaltzea da erronka. Ostalariek gure kroketak saldu ahal izateko formatu eta barietateak lantzen ari gara.



Eneko Gorroño Zugazaga

30 urte · Durango
Argi & Garbi
zabaldu du

Gizonentzako moda-denda zabaldu zuen martxoan Eneko Gorroño, Durangoko Kalebarria kalean.

Zein da orain arte izan duzun lorpen handiena?

Jendea modaren eta diseinuaren arloan egin dugun apustua gustatu egin zaiola ikustea da begarriena.

Zein izan da zailtasunik handiena?

Hasieratik dendarakoen kontzeptuari tinko eustea, beldurrei aurre eginez.

Pozik zaudete izandako harreragaz? Hazteko aukerarik?

Momentuz, gustura

gaude, baina beti daude berrikuntzarako eta proiektu berrietarako aukerak.

Ekintzaile batek zer botatzen du faltan proiektu bat martxan jartzeko?

Lehenengo inbertsioei aurre egiteko laguntza botatzen da faltan.

Behargintzagaz zein esperientzia izan duzue?

Abentura honetan sartu ginenean sortu zitzaizkigun zalantzak argitzeko babes handia eman zigun Behargintzak. Gainera, eman zizkiguten ikastaroetan, oinarriko irizpideak eman zizkiguten enpresen sorrerarako eta kudeaketarako.



Maria I. Manzanera Quijano

33 urte · Durango
Red Hill
akademia zabaldu du

Ingelesa erakusteko akademia zabaldu du María I. Manzanerak Durangon. Iazko urrian ekin zion bideari.

Lehenengo ikasturtea pasata, zelan joan dira hile hauek?

Satisfakzio handiena, zalantzarik barik, ikasturte honetan aurrera egin ahal izatea da.

Zer izan da zailena?

Jendeak ezagutzen ez ninduen leku batean bezeroek zelan erantzun zuten ez jakitea izan da zailena.

Proiektuak badauka hazteko aukerarik?

Jakina, beti ditut ideiak buruan, ingelesaren

ikaskuntzagaz zerikusia dutenak, eta oraindik inork ez dituenak martxan jarri. Dena ondo bada, etorkizunean errealitate bilakatuko dira.

Zerbait faltan bota duzu?

Instituzioek autonomoak gehiago babestea faltan botatzen da. Beste herrialde batzuetan kuotak baxuagoak dira, edo fakturazioaren arabera izaten dira. Hemen kuota finkoak daude, eta ez diote autonomoari aurrera egiten uzten.

Behargintzak lagundu dizu?

Bai. Batez ere enpresa munduan eskarmenturik izan gabe, zalantza asko argitu dizkit.

“Lan handia egin dut, baina oso ondo bizi izan naiz Argentinan; oso eskertuta nago herrialde horri”



ABADIÑO I. Esteban
Mendiolako Ibarragoiti baserriko bere bigarren familiagaz elkartu da Ignacio Unzueta 80. urtebetetzea ospatzeko. Ondoko baserrian jaio zen Unzueta, 1936ko ekainaren 16an, eta hamasei urteagaz joan zen ama eta anaia nagusiagaz Argentinara bizitzera. Mendiolako baserri-
tik, garai hartan 800.000 biztanleko Rosario hirira joan ziren bizimodu berri bati ekitera.

Joan zen asteburuan, Mendiolako auzo eskola izandako txokoa —bertan ikasi zuen Ignaciok umetan— bazkaria eginda ospatu zuten Ignacio Unzueta 80. urtebetetzea. Handik eta hemendik etorritakoen artean, 50 lagun inguru elkartu ziren guztira, Mendiolan.

26 urteko biloba eta Argentinako euskaldunen ondorengoak diren hainbat lagun etorri dira Unzueta 80. urtebetetzea ospatzera. Los *miercolinos* deitzen duten kuadrilako lagunak dira Argentinatik etorri direnak:

eguaztenero Unzueta 80. urtebetetzea ospatzeko. Ondoko baserrian jaio zen Unzueta, 1936ko ekainaren 16an, eta hamasei urteagaz joan zen ama eta anaia nagusiagaz Argentinara bizitzera. Mendiolako baserri-
tik, garai hartan 800.000 biztanleko Rosario hirira joan ziren bizimodu berri bati ekitera.

Bere bizitza guztian zehar, ahal izan duen guztietan etorri izan da Ignacio Unzueta jaioterrira, Ibarragoiti baserriko Tiburcio eta Pilar lagunekin aste batzuk pasatzera. Bost hamarkadatan, ia 20 bidaia egin ditu Rosariotik Mendiolara.

“Las Americas”

Argentinako lehen urteetan Ispasterko bikote batek etxe berean bizi izan ziren Ignacio Unzueta, bere ama eta anaia. Etxerik etxe esnea banatzen hasi zen Ignacio, eta 17 urte zituela beste emigrante euskaldun batek saldu zion etxerik etxe esnea banatzeko negozioa. “Hiru urte eman zizkidan negozioak balio zuena ordaintzeko, eta sei hilabetean ordaindu nion”, gogoratu du Unzuetak. Euskaldun jatorrikoa den emazteagaz ezkondu zen gero, eta Argentinan jaiotako hiru seme-alabaren aita da.

Beste hainbat bizibide eta negozio izan ditu bere bizitzan zehar Abadiñoko argentinarrek: taberna, ostatuak, hotelak... “Lan handia egin behar izan dut, baina oso ondo bizi izan naiz Argentinan, eta oso eskertuta nago herrialde horri”.

Tiburcio Garatek gogoratu duenez, Ignacio Unzueta bezala jende asko joan zen Mendiola eta inguruetatik Ameriketara. Bere hiru osaba ere bai. “Langileak behar zituzten, eta jendeari joatea proposatzen zioten”.

65 urtean Argentinan bizi arren, Unzuetak ez du euskara galdu. Rosarioko euskal etxeko lagunekin harremana eginez, eta ahal izan duen guztietan Mendiolara bueltatuta gorde du ama hizkuntza. “Oso inportantea izan da niretzat hizkuntza ez galtzea”, azpimarratu du. Gogoan du joan zirenean amak ez zekiela gaztelaniaz: “Frankismo sasoia zen, eta eskolan ikasi genuen guk, baina amak Argentinan ikasi zuen gaztelania”.

Atx-Azpin bazkalduko dute aurten errogatibaren ostean

Larranoko ermitara uztailearen 9an da errogatiba

ATXONDO Joseba Derteano
Axpetarrek, urtero urtero, Larranoko mendi lepoan dagoen Santa Barbara ermitara errogatiba egiten dute. Aurten, uztailearen 9an, domekan, izango da egun hori. Mezaren ostean, han inguruan bazkaltzeko ohitura izan dute orain arte. Aurten, aldiz, Axpeko Atx-Azpi soziedadean bazkalduko dute, lehenengoz.

Santa Barbara ermita Atxondoko lurretan dago, eta axpetarrek zaintzen dute auzolanean. Aspaldiko ohitura da errogatibaren bertara joan, meza entzun, eta ostean han inguruan bazkaltzea. Urte askoan Asuntzan batzen ziren, baina Bizkaiko Foru Aldundikoekin eta Urkiolako Parke Naturaleko ardura-
dunekin tira-birak izan zituzten inguru hura parke naturalaren barruan dagoelako. Han bazkaltzea galarazi egin zieten.

Ondoren, azken zortzi bat urteetan Urkiolan bazkaldu izan dute: eguraldi ona egiten zuenean pagadian, eta txarra egiten zuenean aterpean. Aterpea “tristeia eta iluna da”, dio Jon Armendia axpetarrek: “Eta azken urte bietan bertan bazkaldu behar izan dugu eguraldiagatik”. Pagadian bazkaltzeko eguraldi oso ona egin behar du, bestela “gerizpean fresko egin dezake”. Ondorioz, azken urteetan jaitzi egin da bazkaltzarren kopurua: “Urterean batean 100 lagun batu ziren, eta iaz 35-40 bat izan ginen”.

Horregatik, aurten bazkaria Axpeko Atx-Azpi soziedadara tokialdatzea erabaki dute. Eki-
menari aupada berri bat emateko saiakera da.

Bazkaritarako izen-emateak uztailearen 7ra arte iraungo du, eta telefono honetan egin daitezke: 667 485 164.



Larranoko Santa Barbara ermitako meza.

Kaleartean plataformaren mozioaren kontra Independentienteak eta EAJ

EH Bilduk aurkeztu zuen kontsulta eskatzen duen Kaleartean-en mozioa

ABADIÑO I.E.
Lursail bat birkalifikatuz Murieta auzoan merkataritza-gune berriak zabaltzeko udal gobernuaren asmoaren aurrean, herri galdeketa egitea eskatu dute Kaleartean plataformako merkataria eta sindikatuek eta eskaria euren sinaduragaz babestu duten mila abadiñarrek. Martitzeneko ezohiko bilkuran eskari horren kontra egin zuten Aik eta EAJk. EH Bilduko zinegotziek, aldiz, plataformaren mozioagaz bat egin zuten.

Udal gobernuak mozio hori udalbatzan eztabaidatzea ekiditen ibili dela kritikatu zuen EH Bilduk, eta Mikel Urrutia bozeroaleak esan zuen mozioa beraiek aurkeztea izan dela modu bakarra “plataformaren eskariak udaletxean eztabaidatuko zirela bermatzeko”.

Eneko Etxebarria EAJko zinegotziak esan zuen parte hartzeari buruzko araudi berria dagoela EAEn, eta “legeak markatutako tramiteak bete beharko” lirartekeela galdeketa

antolatzeko. Etxebarriaren berbetan, araudi horren arabera, udalbatzak aho batez onartu beharko luke galdeketa antolakuntza bere gain hartzea.

Jose Luis Navarro alkateak ez zuen adierazpenik egin martitzeneko ezohiko bilkuran. Plataformako kide batek, aldiz, hitza hartu zuen pleno amaieran: udal gobernuak “gezur batetik hasi eta horri tiraka” ibili dela kritikatu zuen, eta “herri ereduari buruzko eztabaida sakona egitea saihestu gura” duela.

45 lagun inguru batuko dira Momoitioko jaietako afarian

GARAI M.O.

Atzo hasi ziren jaiak Momoitioko San Juan ermitaren inguruetan, eta domekara arte ospakizunetan murgilduta egongo dira. Atzo iluntzean txopoa altxatu eta sua isiotu zuten, jaiari ekiteko. Egitarauaren barruan, bihar herri-afaria egingo dute, eta antolatzaileek azaldu dutenez, 45 bat lagunek parte hartuko dute, gutxienez. Izan ere, afarirako izena aurretiaz emateko eskaera egin zuten, eta

herenegun horixe zen zerrenda osatzen zutenen kopurua.

21:00etan elkartuko dira afaltzeko, eta jai giroak luze jarraituko du afalostean ere. Horretarako, Itzeder taldearen erromeriagaz dantza egiteko aukera edukiko dute garaitarrek. Domekan, 11:30ean, meza emango da bertako ermitan, eta ostean, dantza saioa eskainiko dute.

Itzeder taldearen erromeriagaz dantza egiteko aukera edukiko dute garaitarrek

Berdintasuna eta genero ikuskera bermatzeko agiria landuko dute

“Tratu eta komunikazio jardunbide egokirako” dekalogo sortuko du udalak



Amaia Legorburu Gizarte Ongizate saileko langilea eta Ainhoa Albizuri Gizarte Ongizateko batzordeburua.

IURRETA Aitziber Basauri Elkartearen eta gainerako kolaboratzaileen artean jarduerak neurrien dekalogo bat sortuko du Iurretako Udalak. Goiuria kulturguneko Jarraipen Batzordeagaz batera landuko dute, “tratu eta komunikazio jardunbide egokirako”. Urrian aurkeztuko dute genero ikuspegi ere bermatuko duen agiria, elkarte eta taldeekin lantzeko.

Gizarte Ongizate batzordearen bitartez landuko dute hori.

Bestalde, genero ikuspegiagaz lotuta, udalak aurtur hartutako erabakiak ekarri dituzte gogora udal ordezkariak. Besteak beste, udaleko sail eta zerbitzu guztietan generoaren perspektiba eta emakume eta gizonen arteko berdintasunaren irizpideak ezartzen joateko hartutako “konpromiso poli-

tikoa”. Udalari lotutako edota tokiko elkarteekin sinatzen diren hitzarmenetan klausula bat jasotzea ere erabaki dute, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legean jasotako printzipio orokorrak bete behar dituzte elkarteak. Diotenez, “urteetako lanari esker emakumea indartu” egin da herrian, “eta joera gora doa”. “Begi-bistakoa den hori idatziz jasoko da”.

Santa Apolonian, San Markosen eta Bakixan, argiztapen berria

IURRETA A. B.

Santa Apolonia, Bakixa eta San Markos auzoetan LED teknologiako argiztapen eraginkorra jarriko du Iurretako Udalak. Energia aurrezteko eta ingurumena hobetzeko konpromisoari eutsi guran hartutako erabakia da hori, udal arduradunen berbetan. Horretarako, 27.000 euroko inbertsioa egingo dute.

Aipatutako auzoetan launa farola aldatuko dira, auzo bakoitzean 200 metroko zonaldea estaliz. Horrela jakinarazi dute udal arduradunek: “Kontsumo elektriko baxu batez energia aurreztu gura da, argiztapen maila egoki batez eta CO2 emisio maila baxuagaz”. Gainera, “gutxien behar den orduetan, gauez, kontsumoa %50 murriztuko dute”.

Gaztañatzen badaude

Aurretik ere jarri izan dute LED teknologiako argiztapena. Iaz, urte amaieran, sei farola ordezkatu zituzten Gaztañatzen; 19.000 euro erabili zituzten horretarako.

Astelehenean udalekuak hasiko dituzte, 33 umegaz

MAÑARIA J.D.

Datorren astelehenean udalekuak hasiko dituzte Mañarian, 33 gaztetxogaz. Udalak sustatu eta Urtxintxa enpresak gartzan dituen udalekuek uztailearen 29ra arte iraungo dute.

Astelehenetik barikura egunero batuko dira, 09:30etik 13:00etara, eta askotariko ekintzak burutuko dituzte: herrian bertan eskulanak zein ur-jolasak egingo dituzte, besteak beste, eta ibilaldiak egitera ere irtengo dira. 3-10 urtera arteko umeek parte hartuko dute udalekuetan, eta adinaren arabera bitan banatuta egongo dira: haur hezkuntzakoak eta lehen hezkuntzakoak.

San Juan jaia ermitan

Gaur San Juan eguna da, eta Mañariko izen bereko ermitan jaia egingo dute. Gaur eguerdian meza izango da, eta, ostean, Mañariko gaztetxoek dantza saioa eskainiko dute. Atzoko eta gaurko ekimenak Andra Mari Dantza eta Abesbatza elkarteak antolatu ditu.

Mila Rodriguezi esker oneko agurra eman diote

26 urte eman ditu musika irakasle Izurtzan

IZURTZA Joseba Derteano

Mila Rodriguezek musika irakasle jardun du azken 26 urteetan Izurtzan. Etapa hori amaitu da. Aurtur ez da izan taldetxoa sortzeko adina izen-ematerik, eta ez du jarraituko. Baina bere ikasle izandakoek ez dute ahaztu urteetan egindako ekarpena, eta esker oneko agurra eskaini diote.

Joan zen eguaztenean jubilatuen lokalera batzeko deia egin zioten, kafe baten bueltan

agur esateko. Hainbat sorpresa zituzten gordeta beretzat. *26 urte gurekin, eskerrik asko Mila* zioen pankartagaz egin zioten ongiatorria eta, besteak beste, lore sorta bat erregalatu zioten.

Beraz, aurrerantzean ez da egongo musika klaserik Izurtzan, baina udalak diru-laguntzak ematen ditu herrikanpoko musika eskoletan ikasi ahal izateko. Horiek jasotzen dituen ordenantza udaletxean dago ikusgai.



Kepa Aginako Otxandiano kartel irabazleagaz.

Kepa Aginakok irabazi du jaietarako kartel lehiaketa

250 euro irabazi ditu kartel irabazlearen egileak

IZURTZA J.D.

Kepa Aginako Otxandiano abadiñar gazteak diseinatutako kartelak iragarriko ditu Izurtzako iraileko jaiak. Berak irabazi du aurtengo kartela aukeratzeko udalak abiatutako lehiaketa.

Kartelaren oinarria pilotalekuaren benetako argazki bat da. Argazki hori digitalki tratatuta marrazki itxura eman dio. Pilotalekuko ezker paretan jaiei lotutako osagaiak pintatzen ari

diren gazteak dira karteleko bigarren osagai nagusia.

Izurtzako kartel lehiaketara aurkeztzen zen lehenengo aldia izan da, eta 250 euroko saria irabazi du. Argazkigintzan esperientzia zabala du, baina aurtur hasi da kartelak diseinatzen. Abadiñon aurkeztu zuen lehenengo, martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira egindako lehiaketan, eta herritarren saria irabazi zuen.

Hasi dira bigarren tonbola solidarioa antolatzen

ZALDIBAR I.E.

Iaz lehenengoz egin zuten, eta aurtur ere minbizia duten umeen aldeko tonbola solidarioa antolatzen dabiltza Zaldibarren. Abenduaren 17an egingo dute tonbola solidarioa. Joan zen urtean bezala, bestalde, 2017rako egutegi bat ere kaleratuko dute irailean. Ekimen horien bitartez bilduriko dirua haurren minbiziaren inguruko ikerketara bideratuko dute, eta baita hezur-muinaren donazioaren inguruko informazioa zabaltzera ere.

Tonbolarako proposak izan daitezkeen eta egoera onean dauden askotariko objektuak emanez, antolatzaileek ekimen solidarioan parte hartzera deitu dituzte herritarrek: liburuak, jolasak, arropak, CDak, etab. hartuko dituzte. Zaldibarko Sorgin tabernan dabiltza tonbolarako materiala biltzen. Ekimenaren inguruko informazio gehiago gura duenak 626 832 661 zenbakira deitu edo *lekerikas@hotmail.es* helbidera idatz dezake.



Mila Rodriguez erdian, esker oneko agurrean.

Bost batzar ireki zabor kudeaketan dauden aukerak azaltzeko

OTXANDIO Joseba Derteano Herri-Ola herrigintza egitas-moko Zero Zabor taldeak zaborren kudeaketaren inguruan kanpaina bat diseinatu eta abiatu du. Kanpaina horren barruan, herritarren kontzientziazioan eragin gura dute; bultzatzen ari diren zabor kudeaketa ereduari zein gaur egun arlo horretan dauden aukerei (Auto konposta, auzo konposta...) buruz informatzea ere badute helburu. Horretarako, hainbat herri edo auzo-batzar egingo dituzte datorren astean.

Ekainaren 29tik uztailearen 1era bost batzar egongo dira. Datorren eguaztenean, 18:30ean, Errementari plazan batuko dira, eta 20:00etan Andikona plazan. Eguenean, 18:30ean, Mekoletako auzotarrarekin batuko dira Arkotxe soziedadean; handik Otxandioko Gaztetxera joango dira, 20:00etan bigarren batzar bati ekiteko. Azkenik, uztailearen 1ean, batzar bakarria egingo dute: 18:30ean, San Antonio auzoan.

Zabor organikoa kudeatzeko bosgarren kontainerra jartzeta da beste helburuetako bat. Hori egiteko, zenbat jende dagoen interesatuta jakin behar dute lehenengo; horren arabera erabakiko dute kontainerak non kokatu.

Boroan San Pedro jaiak hasiko dituzte

ZORNOTZA J.D.

Datorren martitzenetik uztailearen 10era bitartean San Pedro jaiak ospatuko dituzte Boroa auzoan. Jaiei hasiera emateko, martitzenean, 19:00etan, txupinazoa jaurtiko dute trikitilariak lagunduta.

Eguaztenean, San Pedro egunean, eguerdiko mezaren ostean, Udabarri dantza taldeak saioa eskainiko du. Eguenean, besteak beste, herri bazkarian batuko dira auzotarrak.

Uztailaren 1erako hainbat lehiaketa prestatu dituzte Boroako Anaitasuna Elkarteko antolatzaileek. 20:00etan tortilla txapelketaren aurkezpena izango da, eta, ostean, nagusientzako zein umeentzako bolar txapelketak antolatu dituzte. Xabier Aburrizaga eta Joseba Urrutia trikitilarien musika-gaz agurtuko dute barikua.

Txakurrak gustuko dituenak zapatu goizean hitzordu berezia dauka Boroan. 09:00etan hasita txakurren txapelketa eta estatuko San Huberto probako txapeldunordearen erakustaldia izango dira. 14:00etan paella txapelketako paellak aurkeztuko dituzte, 22:00etan idi probak hasiko dira, eta eguna errematatzeke Joxe Angel Elizalde erromeria eskainiko du.

Domekan triki karro poteoa hasiko dute, 10:00etan; ostean, bazkaritara batuko dira.

E26 HAUTESKUNDEAK

Espainiako hauteskundeak datoz domekan, sei hiletan bigarrenenez

Espainiako Gobernua eratu ezinda, hauteskundeak errepikatuko dira etzi



Domekan botoa emateko hitzordua dute herritarrek.

E-26 M.O.

Joan zen abenduaren 20an burutu ziren Espainiako gortetarako hauteskundeak, eta Mariano Rajoyren PP izan zen garaile. Baina, lau alderdi nagusien arteko boto banaketak ez zuen gobernua eratzen lagundu. PP eta PSOE ez ziren izan horretarako kapaz. Horrela, azkenean, hauteskundeak errepikatu egin behar dira, eta domeka honetan da hitzordua.

Epe laburrean, hauteskunde ziklo bizi batean murgilduta daude herritarrek. Iazko maiatzean udal eta foru hauteskundeak egin ziren, abenduan

Domeka honetakoaz aparte, udazkenean Eusko Legebiltzarrerako boto lehia etorriko da

Espainiakoak, eta domeka honetakoaz aparte, udazkenean bertan Eusko Legebiltzarrerako boto lehia etorriko da.

Azken astean, Elkarrekin Ahal Dugu-Unidos Podemos eta EAJk egin dituzte hauteskunde ekitaldiak Durangal-

dean. Elkarrekin Ahal Duguko Rosa Martinez eta Eduardo Maura Durangon egon ziren eguaztenean. "Begi-bistakoa da aldaketa behar dela, aldaketa merezi dugula", esan zuen Martinezek. Maurak, bestalde, "naziotasunak eta autogobernuak defendatzen" dituztela adierazi zuen.

Zornotzan egindako ekitaldian, euskal selekzioak nazioarteko txapelketetan jokatu ahal izatea aldarrikatu zuen EAJk. Etzi "boto berdea" emateko deia egin zuen Andoni Ortuzarrek, "Espainiako lau alderdiei gola sartu ahal izateko".

DURANGALDEA ASTEON

Hirigintzako proiektuei buruz iritzia emateko aukera

ATXONDO > Kale Irekiak ekimenean parte hartu duten herritarrek Atxondoko hirigintzaren (irisgarritasuna, aparkalekuak, oinezkoen guneak...) inguruan egindako proposamenak biltzen dituen erakusketa ipiniko dute, ekainaren 29an (San Pedro egunean), Apatako plazan. Premiazkoen iruditzen zaizkien proiektuak zeintzuk diren erabakitzeke, inkesta bete ahalko dute atxondarrek.

Sexualitatea bizitzeko askotariko erak, Plateruenean

DURANGO > *Heteroaraua ez da gure bakea!* izenburuko mahai-ingurua hartuko du Durangoko Plateruenean ekainaren 27an, 18:30ean, Bilgune Feministaren eskutik. Miren Amurizak dinamizatuko du saioa, eta Bilgune Feministako eta Chrysallis haur transexualen gurasoen elkarteko kideek parte hartuko dute bertan. Sexualitatea bizitzeko era ezberdinak partekatuko dituzte mahai-inguru horretan.

Erromeria egingo dute, zapatuan, Astolako landan

ABADIÑO > De Norte a Sur taldeak udalaren babesagaz antolaturiko erromeria egingo dute, ekainaren 25ean, Astolako landan. Pregoiaren irakurketagaz hasiko dituzte ekitaldiak, 12:20an, eta De Norte a Sur taldeko koruak abestuko du ondoren egingo duten mezan. Gazpatxo txapelketa eta lagunarteko bazkaria ere egingo dituzte, eta arratsaldean dantza txapelketa eta disko festa izango dituzte, besteak beste.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

Anbotoren lagunak
Lekuan lekuko lagunak

Andaluziara edo Costa Doradara bidaiara irabazi ezazu Anbotoren Lagun eginez

Anboto Lagunen artean lau pertsonentzako (2 heldu + 2 ume) astebeterako bidaiara zotz egingo dugu uztailearen 15ean

www.anboto.org
Tel.: 946 816 558
lagunak@anboto.org

EROSKI bidaiak
Auzotatu? Egiazu lagun!



Gaur, bihar eta etzi, Zornotzako kale eta plazetan eskainiko dituzte emanaldiak lehiaketan parte hartzen duten bandek.

Banden eta kale musikaren Haizetara lehiaketak Zornotza astinduko du asteburuan

Asteburuan Zornotzako kaleetan eskaintzen dutenaren arabera banatuko ditu epaimahaiak hiru sariak

> MUSIKA Itsaso Esteban
Azken urteetan bezala, bederratzitzi taldek barik, hamarrek parte hartuko dute, aurten, Haizetara banden eta kale musikaren lehiaketan. Guztira, 80 izango dira lehiaketan parte hartzen arituko diren hainbat herrialde-

tako musikariak. Antolatzaileek azaldu dutenez, mundu osoko 36 bandek aurkeztu dute lehiaketan parte hartzeko eskaria, eta estilo aniztasuna bilatuz aukeratu dituzte hamar partaideak.

Gaur iluntzean hasita, asteburu guztian zehar girotuko di-

tu lehiaketa horren XI. edizioak Zornotzako kaleak. Gainera, azken urteetan bezala, lau gune gastronomiko atonduko dituzte, besteak beste, musika lehiaketaren osagarri. Sagardotegia, garagardotegia, euskal taberna eta txosna zabalduko dituzte.

Asteburuan Zornotzako kale eta plazetan jotzen ibiliko dira lehiaketan parte hartzen duten bandak, eta lau gune horiek ere girotuko dituzte.

Gaur, bihar eta etzi Zornotzan eskaintzen dituzten emanaldiak kontuan hartuta, epaimahaiak

hamar taldeetatik onena irizten dion taldeak 10.000 euroko lehenengo saria jasoko du, eta 1.000 eurokoa instrumentistarik onenak. Hirugarren sari bat ere banatzen dute, bestalde, Haizetara lehiaketan: herritarren bozkarren arabera erabakitzen den publikoaren 4.000 euroko saria.

Hamar talde aukeratuak

Euskal Herriko talde bakararra arituko da aurten Haizetara lehiaketan parte hartzen: The Farra Marching Band gasteiztarrek, hain zuzen ere. Bost musikariek osatzen dute The Farra Marching Band, eta jazz, dixieland eta funk doinuak eskainiko dituzte, besteak beste.

Nazioarteko lehiaketa da Haizetara, eta gasteiztarrekin lehian, munduko txoko desberdinetatik etorritako beste bederratzitzi talde lehiatuko dira: hainbat jatorritako musikariek Bartzelonan sortutako Los Boozan Dukes talde eklektikoa; Builders Brass Collective madrildarrak; cumbia, reggaea eta swinga nahasten dituen El Flecha Negra talde multikultural alemaniarra; Band Of Streets hungariarrak; The Busquitos Holandako jazz laukotea; Energia handiko folka egiten duen eta jatorri desberdinetako musikariek osaturiko Balcony Players; Camillocromo Swing Orchestra Italiako boskotea; Mexiko hiriko Brass Street Boys; eta Portugalgo Farra Fanfarra.

Izaro da Kutxa Kultur programak hautatu dituen 6 musikarietako bat

Bere profesionalizazio prozesurako laguntza jasoko du Izaro mallabitarrak

> MUSIKA I. E.
Izaro kantautore mallabitarra da musikariei zuzenduriko Kutxa Kultur egonaldien programan parte hartzeko aukeratu dituzten sei musika talde eta bakarlarietako bat. Programa horren 2016ko deialdian jaso dituzten 68 proposamenetatik, Amor De Tokyo, Ane Lux, Charlie and the colours, Luma eta Perlak taldeak aukeratu dituzte, Izarogaz batera.

Musika talde amateurrei euren profesionalizazio-prozesuan laguntzen die Kutxa Fundazioak 2013an abiatu zuen programa honek: entseguak egiteko lokalak eskaintzen dizkiete musikariei, baita grabazio estudio batean aritu eta bideo-klip profesional bat grabatzeko

aukera, edota aholkularitza profesionala eta sei kontzertutan jotzeko aukera ere (irailean Igeldon egingo den Kutxa Kultur festibalean, kasurako).

Zaleek crowdfunding kanpainan eskainitako finantzia-zioagaz diskoa grabatzen dabil Izaro, orain. Irailean aurkeztuko du bere lehenengo disko hori.



Irailean kaleratuko duen diskoa grabatzen dabil Izaro.

Kurdistaneko argazkien erakusketa San Agustinen

Astelehenean zabalduko dute lau durangarrek Kurdistanen egindako argazkien erakusketa

> ARGAZKIAK

I. E.
Lau durangarrek martxoan Kurdistanera egin zuten bidaiaren egindako argazkien erakusketa zabalduko dute, ekainaren 27an, Durangoko San Agustin kulturunean. Rojava eta Siria iparraldeko errealitateak ezagutu zituzten durangarrek, eta erakusketan, "gerraz haratago, beste ikuspuntu bat aurkeztu duten argazkiak" osatu dute bilduma. Herritarren parte hartzearen isla diren argazkiak, emakumeen eta gizonen berdintasunaren irudiak, eta lurralde hartan bizi diren herri desberdinen arteko elkarbizitzaren adibideak dira uztailaren 2ra arte San Agustinen ikusgai izango direnak.

Erakusketa horri lotuta, berbaldi bat ere hartuko du, datorren astean, Durangoko San Agustin kulturunean. Michell Allison Kurdistaneko Kongresu Nazionalako Emakumeen bozerroalea gonbidatu dute, ekainaren 30ean, 19:00etan, hitzaldia eskaintzera. Ekialde Hurbileko egoera eta emakumeak gauzatzen dabilen iraultza hartuko ditu Michell Allisonek Durangon berbagai.

Ekainaren 27tik uztailaren 2ra arte egongo da argazki erakusketa San Agustin kulturunean

Bost asteburutan aire zabaleko 15 kultur emanaldi Elorrioko Musikairen

Ekainaren 24tik uztailaren 31ra arte, herriko hiru jauregitan eta plazan izango dira emanaldiak

> MUSIKA Itsaso Esteban

Ekainaren 24tik uztailaren 31ra arte, aire zabaleko hamabost kultur emanaldi izango dira, Elorrioko Musikaire jaialdiaren barruan. Tola jauregian aurkeztu dute programazioa, asteen. Izan ere, jauregi horretan, Casajara eta Lariz jauregietan eta herriko plazan izango dira jaialdiko hamabost kultur emanaldiak. Egutegiak hala egokituta, bost asteburukoa izango da Musikaire jaialdiaren XIX. edizioako programazioa. 100.000 euroko aurrekontuagaz (erdia Elorrioko Udalak finantzatuta), Euskal Herriko eta nazioarteko musika taldeak, eta antzerki zein zirku ikuskizunak ekarriko dituzte. Emanaldiak herriko txoko berezietan izaten direnez, gainera, Elorrioko ondasun arkitektonikoaren aberastasuna agerian ipiniko dute, elorriarren eta bisitarien gozamenerako.

Musikairek kulturazaleei egiten dien eskaintzaren aniztasuna nabarmendu zuen Aitor Iriarte jaialdiaren programatzaileak egitarauaren aurkezpenean. Jaialdiko lehenengo emanaldia da, adibidez, joera horren erakusle argia: euskal musika tradizionala eta flamenkoa uztartuko ditu Jesús Herre-



Tola jauregian egin zuten, martitzenean, jaialdia aurkezteko agerraldia.

Euskal Herriko eta nazioarteko musikak, eta antzerki zein zirku ikuskizunak izango dira

rak *Dantzari* ikuskizunean. Uztailaren 1ean, 22:30ean, plazan izango da emanaldi hori.

Uztailaren 8an Elorrioko joko duen Quantic & His Orchestra musikariaren ibilbideak eta haren musikak ere erakusten dute fusiorako joera hori. Will Holland talde horren sortzailea Ingalaterran jaio zen, Kolonbian bizi izan da, eta New Yorken

sortu du funka, soula eta jazz uztartzen dituen proiektua.

Burgosen sortutako La Maravillosa Orquesta Del Alcohol taldearen folk-rocka, Ghanan jaio eta Los Angelesen bizi den Rocky Dawuniren reggae doinuak, Abou Diarra malitarraren afrikar musika, Mariana Yegros argentinarraren cumbia elektronikoa, eta Quimi Portet katalanaren pop rocka ere bada-kartza, besteak beste, Musikairek, Durangaldera.

Gainera, Audience gernikarren eta Izaki Gardenak gas-teiztarren pop rockari eta The Romanticos taldekoren bluesari ere egin diete jaialdian lekua.

Euskal musika tradizionala eta flamenkoa uztartuko ditu Jesús Herrera, uztailaren 2an, plazan

GEURE DURANGALDEA

JOSUNE ARANGUREN

Kultur teknikaria



Educacioncilla general

Vianako Printzea kultur sari-
taren azken urteetako sarituen
zerrenda: historiagilea, idazlea,
fisikaria, arkitektoa, margola-
ria, filosofoa, jazz musikaria,
sopranoa, aktorea, filologoa,
ingeniaria, hizkuntzalaria... Ze
lanbide "nobleak"!

Desberdina izango da aur-
tengoa. Alde batetik, Espainia-
ko (eta Nafarroako) errege-
erreginak gonbidatu ez dituzte-
lako eta, bestalde, saritua izan
den Ignacio Aranguren Ga-
llués sarituaren berbengatik.
Aranguren irakaslea antzerkia
gizartea kohezionatzeko eta
balioak transmititzeko tresna-
tzat erabili izanagatik hautatu
omen du Nafarroako kultura
kontseiluak. Arkeologo, bio-
linista, koreografo eta beste
hainbat langile "noblek" baino
boto gehiago batu ditu Ignacio-
ren hautagaitzak, antza.

Irakasleentzako esker hi-
tzak aukeratu zituen hain on-
dratu sentitu zen unean. Bizi-
tza osoan ez omen du alderik
ikusi kultura eta hezkuntzaren
artearen. Biak ei dira uztarri
berekoak norbere burua eta gi-
zartea ulertzerakoan. Duela 35
urte sortu zuen antzerki eskola
helburu horrekin: antzerkia
eta hezkuntza uztartzea.

*Hogeita hamabost urte eta
gero hau!* esango genuke Osko-
rri plagiatuz. Urteotan aurrera
egin dugu agian eskubideen
defentsan zein gauzatzean. Bai-
na aurrera egin du baita hezi-
bakoan adierazpen askatasun
eta ekintzak ere. Horregatik,
2017ko Viana Printzearen sari-
rako hautagai zerrendan, hain
lanbide nobledun jendartearen,
sar itzazue honakoak ere: ho-
mofoboak eta matxistak ez di-
renak, kalean txistua botatzen
ez dutenak, kartelak behar den
lekuetan ipini eta ostenan ken-
tzen dituztenak eta bortizkeria
baztertzen dutenak.

• Ekainaren 24an, 22:30ean,
Noctis Labyrinthus, Casajaran

• Uztailaren 1ean, 22:30ean,
Jesus Herrera, plazan

• Uztailaren 2an, 22:30ean,
La M.O.D.A., plazan

• Uztailaren 8an, 22:30ean,
Quantic & His Orchestra,
plazan

• Uztailaren 9an, 22:30ean,
Rocky Dawuni, plazan

• Uztailaren 10ean, 19:00etan,
Dantza garaikidea, plazan

• Uztailaren 15ean, 22:30ean,
Abou Diarra, Larizen

• Uztailaren 16an, 22:30ean,
**NES + Maria Arnal eta Marcel
Bagés**, Larizen

• Uztailaren 17an, 19:00etan,
Zirku antzerkia, plazan

• Uztailaren 22an, 22:30ean,
La Yegros, plazan

• Ekainaren 23an, 22:30ean,
Audience, plazan

• Uztailaren 24an, 19:00etan,
Mikro antzerkia, Casajaran

• Uztailaren 29an, 22:30ean,
Quimi Portet, Tolan

• Uztailaren 30ean, 22:30ean,
Izaki Gardenak, Tolan

• Uztailaren 31n, 19:00etan,
Greg Izor & The Romanticos,
Tolan



uda kalean bizi 2016 san agustin kultur gunea kalean
MUSIKA ZIRKOA DANTZA ANTZERKIA

Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

EKAINAK 24
21:30ean
DURANGO'S PUB QUIZ
LEHIAKETA

EKAINAK 25
20:00etan
NOE eta ASIER
DANTZA

UZTAILAK 2
19:00etan
JORGE eta DEIENE
DANTZA

JAI AK!

Atxondo

2016ko EKAINA



www.atxondo.net

*2016ko San Pedro jai
zoriontsuak opa deutsueguz!*



AXPEKO JAIEN EGITARAUA

EKAINAK 24, barikua

11:30 Meza nagusia.
Ondoren, igel txapelketa.
Gero, herriko jubilatuentzat lunch-a.

17:00 Briska txapelketa.

18:30 Esku pilota partiduak.
Atxondoko gazteen txapelketa.
Ondoren, Axpeko II. Binakako Pala Txapelketako finalak.

22:30 Rock kontzertuak.
Amaitutakoan, egunsentira arte DJ-a.

EKAINAK 25, zapatua

“Egun guztian zehar zaldi apustu berezia”

11:30 Gazteen mendi irteera.

17:00 Mus txapelketaren hasiera.
Arratsaldean, bakailaoa pil-pilean eta tortilla txapelketa.

Oharra: Partaide bakoitzak behar dituen osagai guztiak ekarri beharko ditu. Bakailao txapelketako diru-sariak berdina izango dira partaide guztientzat. Kazola bakoitzak gutxienez 8 bakailao xerra izango ditu. Bestela, txapelketatik kanpo geldituko da. Irabazleak diru-sari berdina, txapela eta garaikurra izango ditu. Sariak gazteentzat eta nagusientzat egongo dira. Aurkezpen ordua 21:00etan izango da.

Herri afaria: Parte hartuko dutenek euren lagun taldearekin frontoian afaldu ahal izango dute. Jai batzordeak ogia, postrea eta kafea jarriko ditu.

22:30 Jaietako argazki zaharren emanaldia bertsolariek lagunduta. Eneko Abasolo ‘Abarkas’ eta Aitor Bizkarra. Ondoren, erromeria Luhartz taldeagaz.

EKAINAK 26, domeka

Umeen eguna Atx-Azpi elkarteak antolatuta.

Goizean zehar artisauen erakustaldia, gazta salmenta eta herriko perratzailea zaldiari perrak jartzen arituko da.

11:30 Meza nagusia.
Atxondoko Andasto dantza taldea.

13:00 Mus txapelketaren amaiera

13:00 Gazteen esku pilota partiduak

18:00 Kontu kontalaria

19:30 Umeentzat tailerrak eta jolasak.
Ondoren, txokolatada eder bat.

APATAKO JAIEN EGITARAUA

EKAINAK 25, zapatua

Mendi martxa, Asuntze Mendi Taldeak antolatuta.

9:00etan PLAZAN:
• Umeentzako ibilbidea
• Ibilbide laburra
• Ibilbide luzea

EKAINAK 28, martitzena

17:30 Txopo txiki apainketa Gaztetxean.

19:00 Txopo altxatzea txistulariekin girotua, eta jaietako pregoia.
Ondoren txosnak irekiko dira.

EKAINAK 29, eguaztena

San Pedro Eguna

9:00 Kalejira txistulariekin.

11:00 Inguru abentura umeentzat.

18:30 Andasto dantza taldearen kalejira eta erakustaldia.

EKAINAK 30, eguna

14:00 Jubilatuen bazkaria.

17:30 Rock eroa, umeentzako antzerkia.

18:00 Pintxo potea.

20:00 Emakumeen pala txapelketa eta pilota profesionala.

UZTAILAK 1, barikua

20:15 Flash Move.

20:30 Tortilla eta bakailao txapelketak, eta afaria frontoian.

23:00 Erromeria Oxabi taldearekin.

UZTAILAK 2, ZAPATUA

Koadrilla eta mozorro eguna
MOZORRO GAIA: ZIRKUA

15:00etan hasita:
• Paella jana
• Koadrillen arteko jolasak
• Poteoa Ttek txarangarekin

19:30 Umeentzako tailerra, Diables de la Granada taldearen eskutik.

22:30 Diables de la Granada taldearen emanaldia.
Ondoren kontzertuak:
• SERMONDS
• WORHT IT

UZTAILAK 3, domeka

11:00 Atxondoko gazteen pilota partiduak.

17:00 30. Igel txapelketa Itziar tabernan.

18:00 “Olinda” taldearen kontzertua.

19:30 Talo jana eta txopoa bota.

BURDINAK, S.L.
EBAKITZE LERROA - DESAGERKETA - ZIZAILAK

Artia indus. ATXONDO Tel.: 946 583 164 Faxe: 946 583 416

U3 ARKITEKTURA

U3 Arkitektura Teknikoa
J.A. Agirre Lekube, 10
48291 Atxondo
Tel.: 946 201 523 / 627 575 583
Faxe: 946 819 061
E-mail: info@u-3.es

Eraikuntza-obrak
Proiektuen kudeaketa osoa
Obra berria, birgaikuntza, zaharberritze lanak eta legalizazioak

Jaietako argazki zaharrak bertsoetako dituzte Abasolo eta Bizkarra bertsolariek

Zapatuko herri afariaren osteko saioak bertsoak, historia eta memoria uztartuko ditu.



Jota txapelketa, pilota partiduak... askotariko argazkiak batu dituzte herritarren laguntzagaz.

> BERTSOAK J.Derteano

Axpeko jaien barruan herri afaria egiten dute urtero pilotalekuan, eta afalostea berezia izan ohi da: musika, bertsoak... beti izaten da ikuskizunen bat. Zapatu honetako afalosteak historia, memoria eta bertsoak uztartuko ditu.

Jaien antolakuntzan dabilen kideek jaietako argazki zaharrak batzen jardun dute. "Bati eskatu eta besteari eskatu, azkenean handik eta hemendik bilduma polita osatzea lortu dugu. Ez argazkiak bakarrik, sasoi bateko jai egitarauak ere batu ditugu", azaldu du Jon Armendiak.

Argazki horietatik batzuk aukeratu, eta zapatu honetako afalostean, 22:30 inguruan, pilotalekuan egokitutako pantaila batean emango dituzte. Bati baino gehiagori memoriaren kutxa irekiko dioten argazkiak jarriko

dituzte. Eta argazki bakoitzari bertsoak egingo dizkiote Eneko Abasolo 'Abarkas' eta Aitor Bizkarra bertsolariek. Bertsoarik bertso, Axpeko jaien azken 40 bat urteetako historia errepasatuko dute axpetarrak protagonista dituen argazkien bidez.

Esaterako, argazkietako bat pilota partiduak herriko gazteek jokatzen zituzten sasoiakoa da. Orduko hartan, Gorrotxategui-Orunak eta Barrutia-Basetak jokatu zuten lehenengo, eta Lazkano-Lorentzok eta La-

Bihar, 22:30ean hasiko da jaietako argazki zaharren emanaldia

rrabaster Castillo I-ak ondoren. Beste argazki batean, Atxondo mailako jota txapelketa —Axpen egin ohi zen— parte hartu zuten lagun bi ageri dira, bizi-bizi dantzan. Urte hartako irabazleak 2.000 pezeta irabazi zituen.

Abasolok eta Bizkarrak ordu eta erdi inguru emango dute argazkiei bertsoak egiten. Gaurerdi gainean dela, Luhartz taldearen erromeria hasiko da.



Beñat Gorostiza apustuko protagonistetako bat izango den poniagaz.

Zenbat balio dute poni baten eta asto biren gorotzek?

Gorotzak non jausten diren apustu egin daiteke

> APUSTUA J.D.

Zapatuan apustu berezi bat antolatuko dute Axpeko jaietan, lehenengoz. Poni bat eta asto bi esparru baten barruan jarriko dituzte. Esparruko lurzorua laukietan banatuta egongo da, eta lauki bakoitzak zenbaki bat izango du. Pentsatzekoa da hiru animaliek, lehenago edo geroago, digestioaren osteko behar fisiologikoari ekin beharko diotela. Eta denak une hori noiz helduko zain egongo dira. Izan ere, gorotzak zein zenbakitan pausatuko diren apustu

egin daiteke. Euro bat balioko du apustu bakoitzak. Irabazleak apustuetan jasotako diru kopuruaren zenbateko bat irabaziko du.

Beñat Gorostiza axpetarra da apustua prestatzen ibili denetako bat: "Lagun batek esan zidan Mungian egiten zutela. Jaiak antolatzeko batzar batean aipatu nuen, eta, azkenean, aurrera irten da". Aurtengo aldia esperimendu moduan hartuko dute: "Lehenengo aldia denez, aurtengo esperientziak hurrengo urteetarako balioko digu".

Nekez, Ekaitza eta DJ Ibairen musika gaur gauean

> EKITALDIK J.D.

Axpeko San Juan jaietan askotariko ekitaldiak prestatu dituzte. Musika izango da protagonistetako bat. Gaur, 22:30ean, Nekez eta Ekaitza taldeen kontzertuak daude; ondoren, DJ Ibaik jardungo du.

Domeka umeen eguna da. Goizean zehar Beñat Gorostiza perratzaileak zaldi bat perratuko du ofizioa erakusteko. 13:00etan gazteen esku pilota partiduak daude eta 18:00etatik aurrera kontualaria eta tailerrak egongo dira.



ACE

GIS



www.fuchosa.com

Europako automozio balazta sektoreko osagaien ekoizpenean liderrak gara



Tola jauregian egin zuten, martitzenean, jaialdia aurkezteko agerraldia.

Txistulariek jaurtiko dute txupinazoa

Ane Diez, Arantza Berriozabalgoitia eta Maria Baseta izango dira jaietako protagonista

> TXUPINAZOA J.Guenetxea

Atxondoko txistulariek izango dute aurten jaiei hasiera ofiziala emateko ohorea. Ane Diez, Arantza Berriozabalgoitia eta Maria Baseta dira datorren martitzenean udaletxeko balaitik txupinazoa jaurti eta pregoia irakurriko dutenak. Ane eta Maria DBHko ikasleak dira. Txistua jotzeko zaletasuna ere badute, eta Arantza irakasle dute. Hirurek "ilusioz eta urduritasunez" hartu dute txupinazoa jaurtitzeko ardura.

Ane Baseta pala jokalaria ere bada, eta ordutegiak aldatu behar izan ditu biak egiteko: txistua jo eta palan jokatu. Pa-

lan Bizkaiko txapelduna da bere kategorian, eta txistua jotzen geroz eta gehiago gozatzen du.

Anek, berriz, 11 urteaz ekin zion txistua jotzeari, eta pozik dabil Jaizale txistulari taldeagaz egiten dituen irteeretan zein Atxondoko jaietan jotzen. Arantza beteranoa da txistua jotzen. Gaztetxoa zela, ustekabean txistu bat oparitu zioten, aurrerantzean musika tresna hark bere bizitzan izango zuen garrantziaz jabetu barik.

Txupinazoa jaurtitzekoan, hiru txistulariek Jaizale taldeko kideen babesa ere izango dute. Beraz, txistuaren soinurekin ekingo diete jaiei.

Mendi martxa bategaz abiatuko dute Apatako jaietako egitaraua

Martitzenean txopoa igota eta txupinazoa jaurtita hasiko dira jaiek Apatan



lazko jaien hasierako argazkia.

> ASTE NAGUSIA J.G.

Asuntze mendi taldeak antolatutako mendi martxagaz ekingo diete jaiei Apatan. Bihar, 09:00etan jarri dute irteera plazan. Hiru ibilbide prestatu dituzte. Umeentzat 5 kilometroko ibilbide laburra prestatu dute (Axpe, Olazabal eta Zabaleta iturria). Bestalde, ibilbide normalak 11 km izango ditu. Axpetik Larranoko bidea hartu, eta Itxaurtxuetako gurutzera joango dira. Handik antenetara joan, eta pista hartuz, Arrazolako kilometro bertikaleko ibilbidea hartuko dute. Zabale-tako iturritik Olazabal auzora joan, eta Axpera jaitsiko dira. Ibilbide gogorrak 12 km ditu guztira, eta zailtasun handiagoa ere bai. Besteak beste, Kurutzeta mendira igoko dira.

Jaien hasiera ofiziala da-

Hiru ibilbide prestatu dituzte: umeena, normala eta gogorra

Marixurriek flash mova prestatuko du ludotekako ume eta gurasoekin batera

torren martitzenean izango da. Ekainaren 28an, 17:30ean, txopo txikia apainduko dute gaztetxean. 19:00etan txopoa igoko dute, txistulariek girotuta. Aurtengoan, txistulariek botako dute txupinazoa.

Jaietako nobedadeen artean, Marixurriek antolatu-

tako flash mova dago. Ludotekako umeekin eta gurasoekin prestatutako dantza grabatuko dute, uztailaren 1ean. Ondoren, tortilla eta bakailao txapelketak izango dira. Gaua Oxabi taldeak girotuko du. Galdakaoko taldeak iaz ere hartu zuen parte Apatako jaietan, eta aurten ere gonbidatzea erabaki du jai batzordeak.

Kataluniatik Apatara

Kataluniako Les Diabls de La Granada taldea aurtengo jaietako beste berrikuntzetako bat izango da. Uztailaren 2an umeentzako tailerra emango dute La Granada herriko taldeko kideek. Gauean, berriz, katalanek emanaldia eskainiko dute. Sua eta piroteknia dira katalanen ikuskizuneko indarguneak.

Azkonizaga

Ortuzar, 1 · Izurtza (Bizkaia) · Tel./Faxa: 946 810 652
azkonizaga@azkonizaga.com
www.azkonizaga.com

ESTAMPACIONES LARRETXE S.L.

- PIEZAK TROKEL PROGRESIBOEN BITARTEZ FABRIKATZEA
- HAGAXKEN HOTZEKO ESTANPAZIOA
- ESTANPAZIOA ORO HAR

Jauregi kalea, z/b · ARTIA ind. 5. pab. · 48292 ATXONDO
 Tel.: 946 231 645 · Faxa: 946 231 436 · www.larretxe.com

ANAIK, s.a.l.

AROTEGIA - TEILATUGINTZA

Martzaa auzoa, z/g - Atxondo - Tel./Faxa: 946 231 497

JAIK!

Berriz

2016ko EKAINA



Emakumeen aurkako
indarkeriarik eta
eraso sexistarik ez!



JAIKETAN BE EUSKARAZ!

BERRIZKO JAIEN EGITARAUA

EKAINAK 28, martitzena

17:00 Pregoi Txikia udaletxean. Gero olinpiadak eta umeentzako askaria.

18:30 Txosnen irekiera.

19:00 Pregoa eta txupinazoa udaletxean, Xabier Amuriza. Ondoren jaietako kartel lehiaketaren sari-banaketa udaletxean. Ostean, urtero bezala, sardina jana.

20:00 Donien Atxa eta dantzari dantza entsegua, Elizondo Plazan.

21:00 - 22:00 DJ Robert-ekin dantzaldia Elizondo Plazan.

22:00 Des-Habitat" Kale Antzerkia Vaiven taldearekin eskolako patioan. (Euria egiten badu Berrizburu kiroldegian).

23:00 DJ Robert-ekin dantzaldia Elizondo Plazan.

23:00 Kontzertua, Txosnagunean:
• Kohatu
• Nada
• Monkday

EKAINAK 29, eguaztena

11:00 Margo lehiaketa umeentzat. Udaletxeko lorategian. (Euria egiten badu, Eskolako patio berrian).

12:00 Meza nagusia. Ondoren, Dantzari Dantza.

14:00 Jubilatuentzat bazkaria. Bazkalostean musika. Kiroldegian.

17:00 Jolasak Bubble Balls-ekin Berrizburu futbol zelaian (8 urtetik gorakoentzat).

17:30 Tiragomas txapelketa udaletxeko parkean. Maila ezberdinak.

18:00 Herri kirolak (15 urtetik gorakoentzat). Izena ematea Txosnagunean.

19:00 Pintxo potea eta Bertso eskola Txosnagunean.

19:00 Bizikleta martxa herrikoia, udaletxe aurrean hasita.

20:00 Dantzari Dantza.

22:00 Elizondo Plazan Kontzertua:
• Kalakan.

23:00 Karaokea txosnagunean.

EKAINAK 30, eguena

12:00 Tribiala (12 urtetik gorakoentzat). Udaletxeko lorategian.

12:30-14:00 // 16:00-19:00 8 urtetik gorakoentzat: Jumping, surf, choppers etab. Berrizburu kiroldegian.

16:00 Ur jolasak txosnagunean.

19:00 Kale antzerkia, Markeliñe "Crusoe". Eskolako patio berrian.

20:00 Herriko Igel txapelketa (12 - 18 urte). Lorategian.

21:00 Gazteentzako Bolo txapelketa. (12 - 18 urte).

21:30 Musika eta Jaia Disko Dantzarekin.

22:00 Kontzertu akustikoa txosnagunean.

23:00 Bits jaia.

UZTAILAK 1, barikua

17:00 Play back lehiaketa Elizondo plazan.

18:00 Umeen gimkana txosnagunean.

18:00 Gazteentzako frontenis txapelketa Berrizburu kiroldegian. (10-16 urte)

19:00 Nagusien gimkana (18 urtetik gorakoentzat).

20:00 La Pulga "Berriketan" Flamenko eta txalaparta lorategian.

21:00 Erromeria Drindots musika taldearekin. Elizondo Plazan.

22:00 Nesken VII. eta Mutilen VIII. frontenis txapelketa finalak Berrizburu Kiroldegian.

23:00 Erromeria Drindots musika taldearekin. Elizondo Plazan.

23:30 Kontzertua:
• Kometa
• Rural Zombies
• El Txef A.

UZTAILAK 2, zapatua

11:00-14:00 // 16:30-19:00 Trena Elizondotik Olakuetaraino. Berrizko Merkatarik Elkartea (BME) antolatuta.

12:00-14:00 // 16:00-19:00 Umeentzat: Katxarreando, ludo trena eta Jolas parkea eskolako patio berrian eta inguruan.

12:00 Meza nagusia eta Dantzari Dantza.

14:00 Paella lehiaketa udaletxeko lorategian.

15:00 Txosnen bazkaria.

21:00 Mozorroren sari banaketa egongo da. Txosnagunean.

17:30 Karta joko lehiaketa: mus, tute eta briska. Izen-ematea 17:00 - 17:30.

18:00 Koadrilen jaitziera, txosnek antolatuta.

19:30 Donien Atxa jartzea. San Pedro txiki auzoko jaiak. Laguntzen etortzen diren auzokoentzat afari-merienda.

19:30 Herriko igel txapelketa. Izen-ematea 19:00 - 19:30.

20:00 Dantzari Dantza.

20:30 Bolo txapelketa.

22:00 Erromeria Luhartz musika taldearekin Elizondo Plazan.

23:30 Kontzertua:
• Gudaize
• Nevada
• Danny Meip & Viktor Zelden Djekin.

23:00 Suzko zezena.

UZTAILAK 3, domeka

12:30 Meza. San Pedro txiki auzoko jaiak. Jarraian, dantzariak: Berrizko San Lorentzo taldea.

17:00 3x3 saskibalo txapelketa 9-17 urte bitarteko neska-mutilentzat. Institutuko patioan. Ostean "Jaurtiketa libreen" saskibalo txapelketa familientzat.

19:00 Barbakoa eta afrikar musika txosnagunean.

21:00 Tortilla lehiaketa udaletxeko lorategian.

22:00 Kontzertua txosnagunean:
• STORM

23:00 Su artifizialak

23:15 Kontzertua Elizondo Plazan:
• THE LADIES.

00:30 Argazki erakusketa. Txosnagunean.

Eguraldia edo baldintza teknikoak direla eta, ekitaldien kokapena alda dezakegu edo bertan behera gera daiteke.

Kale antzerkietan eta bestelako ekitaldietan gurasoek umeen ardura izan behar dute.

Jai Batzordeak ez du bere gain hartzen jaiegun hauetan gerta daitezkeen kalteen erantzukizunik.

PINTURA DEKORATIBOA
ETA INDUSTRIALA

PINTURAS
BERRIKOLOR

GAIZKA FERNANDEZ
699 009 050
GAIZKA.FER76@GMAIL.COM

kantoi
kafe-taberna

Ondo pasa
jaietan!

Learreta Markina, 22
BERRIZ

Club Hípico

Eitua auzoa, z/g
48240 Berriz
Dukiena baserria
652 745 832

Dukiena-BERRIZ

www.dukiena.com

**pedro
juan**
JATETXEA

SAN ANTONIO, 1.
48.240 BERRIZ BIZKAIA
TEL: 94.683.63.46

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

A&L
AZPIRI LEJARDI
Correduria de Seguros S.L.

Geltoki kalea, z/g
48240 BERRIZ
Tel.: 946 824 937
info@azpirilejardi.com
www.azpirilejardi.com

100 years **FORJAS DE BERRIZ, S.L.**

Pieza berezien forjaketa beroan

Ituriza, 22 • 48240 BERRIZ (Bizkaia)
Tel.: 946 826 520 • Fax: 946 826 521
www.forjasdeberriz.com

> JAIA Itsaso Esteban

Eguaztenean agerraldia egin zuten jai egitarauaren inguruko azalpenak emateko, eta han azaldu zuten, Jai Batzordeak aho batez erabaki du Xabier Amuriza aukeratzea pregoia irakurri eta txupina botatzeko. Bestalde, aurreko urteetan bezala, jai batzordeak aldarrira egin die berriztarrei jaiak parekideak izan daitezen eta euskaraz bizi ditzaten. *Ezetzaz ezetz da!* lemagaz, jai guzietan banatuko dituzten eskumuturrekoak janztera gonbidatu dituzte herritarrek.

Azken urteetan ohitura den bezala, zapatua (uztailaren 2a) izango da Elizondo inguruan jai giroa gehien zabalduko den eguna. Koadrilen Eguna ospatuko dute, eta berriztar gehien hartzen dituzten jaietako hitzorduetan elkartuko dira. Udalteko lorategian, lagunartean paella lehiaketan parte hartu, eta bazkaltzera elkartuko dira milatik gora berriztar. Eguaztenerako 1.200 lagun zeuden izena

emanda. Zapatu bazkalostean, parte-hartze handikoak izaten diren mus, tute eta briska lehiaketak egingo dituzte, udaletxe-ko lorategian.

Gazte berriztarrek Txosnagunean bazkaltzera elkartuko dira, uztailaren 2an. Mozorrotuta, herrian zehar kalejiran eta poteoan ibiliko dira arratsaldeko Koadrilen Jaitsieran.

Dantzari Dantza berritzen

Jaietako tradizio handiko ekitaldia den Dantzari Dantza berritzeko, herriko bi dantza taldeetako kideak azken urte t'erdian lanean jardun direla azaldu zuten jaien aurkezpenean. Dantzari Dantzan aritzeko baldintzak aldatzea adostu dute San Lorentzo eta Iremiñe taldeek. Orain arte, ezkongabeak izan behar zuten jaietan dantza egiten zutenek, eta gizonetakoak izan dira, guztiak. Aurrerantzean, urtean zehar plazaz plaza ibiltzen diren dantzari guztiek edukiko dute jaietan plaza aritzeko aukera.

Sei egun Berrizko San Pedro eta Santa Isabel jaiez gozatzeko

Ekainaren 28tik uztailaren 3ra, askotariko kirol eta kultur eskaintza aukeran



Udalaren eta Jai Batzordearen ordezkariak aurkeztu zuten, eguaztenean, egitaraua.



Ekainaren 29an joko du Kalakan Iparraldeko hirukoteak.



Kohatu Berrizko taldea txosnagunean arituko da jaietako lehen egunean.

Jaietako egun denetan izango da zuzeneko musika gozatzeko aukera

Kalakan taldea da Berrizko jaietako egitarau musikaleko apusturik handiena

> MUSIKA Itsaso Esteban

Kohatu, Nada eta Monkday taldeena izango da Berrizko jaietako lehenengo musika emanaldia. Txosnagunean arituko dira ekainaren 28an, txupinazoaren egunean, 23:00etan. Herriko

taldea da Kohatu, Plateruenean egin zuten Durangaldeko lehenengo maketa lahiaketa irabazi zuen laukotea.

Askotarikoa da Berrizko Jai Batzordeak antolatu duen jaietako musika kartela, eta Kalakan Iparraldeko hirukotearena da apusturik handiena. Ekainaren 29an arituko da Kalakan, Elizondo plazan. 2015ean kaleratu zituzten *Elementuak* eta *B Aldeak* diskoetako kantak eskainiko dituzte Thierry Biscary, Xan Errotabere eta Jean Michel Bereau kantari eta perkusionistek. Euskal kantagintzako erreperitorio tradizionaleko kanten interpretazio bereziak eskainiko dituzte. Berrizen jo eta gero, uztailean Washingtonen, Iruñean edo Trenton joko dute.

Musikazaleek egunero edukiko dute zuzeneko musikagaz gozatzeko aukera Berrizko jaietan. Uztailaren 1ean, esaterako, 2014an Gaztea Maketa lehiaketaren entzuleen saria jaso zuen Kometa, Rural Zombies eta El Txef A proiektua izango dira zuzenean entzungai.

Hurrengo egunean, uztailaren 2an, Gudaize, Nevadah eta Danny Meip & Victor Zelden DJen txanda izango da.

Durangaldeko Storm eta The Ladies madrildarrak arituko dira jaietako azken egunean, uztailaren 3an. Txosnagunean joko du Storm-ek, 22:00etan; eta Elizondo plazan, 23:15ean, The Ladies-ek. Jaiak rock & rolla dantzatzu agurtzera gonbidatuko dituzte berriztarrek.

Gaztea irratiko entzuleen saria jaso zuen Kometa taldeak ere joko du

Jaiak rock & rolla dantzatzu agurtuko dituzte berriztarrek

VCG DECOLETAJE
Vda. de Cándido Gastelurrutia, S.A.

☎ 946 824 012 ☎ 946 827 978

✉ info@vcg-decoletaje.com

www.vcg-decoletaje.com

Eitua Industrialdea, 20. 48240 BERRIZ, Bizkaia

Juliantxu
Jatetxea

Tel.: 946 824 077
48240 Berriz (Bizkaia)

HIERRROS
IEZU S.A.
burdinak
eta metalak

Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131
Faxa: 946 824 390 - hierrosriezu@telefonica.net

Xabier Amurizari eskerrak emango dizkiote jaietako txupinazoa botatzeko ardura emanda

Bertso-plazak utzi egin ditu Xabier Amurizak, eta Berrizko jai batzordeak berarengan pentsatu du pregoia botatzeko

> TXUPINAZOA Markel Onaindia

Xabier Amurizak bertso-plazak utzi ditu, eta azken egunetan berari eskerrak emateko, hainbat ekitaldi egin dira Durangaldean. Izan ere, lan oparoa egin du bertso-gintzan, literaturan eta beste hainbat jardueratan, eta jende askoren estimua irabazi du, maila profesionalean zein pertsonalean. Durangaldeko Bertso Eskolak antolatu ditu ekitaldi horiek, baina oraindik eskertza eta omen gehiago jasoko ditu Andikoakoak. Berrizen, San Pedro eta Santa Isabel jaietako txupinazoa botatzeko ardura eman diote jai batzordekoek, ideia aho batez onartuta, gainera.

Plazak utzi dituen honetan, "omentzeko eta eskerrak emateko" modu bat dela uste du Miren Iturriagaetxebarria jai batzordeko kideak. Gainera, Amurizak ez ei du inoiz jaietako pregoirik bota, haren emazteak kontatu dienez. "Gauza ugari egin ditu Amurizak, baina hori falta zaio". Amurizaren ekarpenaz galdetuta, "beti oso prestua" izan dela adierazi du Iturriagaetxebarriak. Berrizen, auzoetako bertso saioetan sarri kantatu izan du.

Jaietako hasiera emateko txupinazoa ekainaren 28an izango da, San Pedro bezperan, udaletxean.

Jende eta artista ugari

Amuriza, Izarren saldagina lelopean hiru ekitaldi burutu ziren joan zen asteburuan. Zornotzan, berbaldi bat eskaini zuten bertsolariaren ekarpena azaltzeko. Barikuan, *Emaidazue freskura* izeneko kantaldia hartu zuen Plateruena kafe an-


tzokiak; Anje Duhalde, Tapia eta Leturia, Natxo de Felipe eta Anton Latxa, Maialen Lujanbio... sortzaile askok parte hartu zuten, eta tartean, Miren alabak ere bai. Kopla berriak kantatu zizkion aitari, alaba izatearen bizipenetatik.

Jaiei hasiera emateko txupinazoa ekainaren 28an izango da, San Pedro bezperan, udaletxean

Domekan, erromesaldi artistikoan batu ziren herritar ugari, Etxanon hasi eta Berrizeraino

Domekan, erromesaldi artistikoan batu ziren herritar ugari, Etxanotik Berrizeraino. Musika, dantza eta bertsozko ez zen falta izan Etxanon, Zornotzako herrigunean, Iurretan, Abadiñoko Gerediagan eta Berrizen bertan. Mikel Ur-dangarin, Iurretako abesbatza, Jon Maia edota Berrizko artista ugari batu ziren, besteak beste. Herri bazkaria eginda amaitu zuten erromesaldia.

Hilaren 28ko txupinazoan, herriaren aurrera agertuko da berriro Xabier Amuriza.



Platerueneko ekitaldiaren amaieran berba hartu zuen Amurizak, hunkituta.



Erromesaldi artistikoan Amurizaren lagun eta zale ugari batu ziren.

Ganeko Etxe JATETXEA

Tel.: 946 824 027
Elizondo, z/g - BERRIZ

Liburudenda
Amalur

- aldizkariak -
- papera -
- opariak -

Hurrika, 29 Berriz
Tel.: 946 826 248

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

T.A. TORNILLERIA AMEZUA S.A.

TORLOJU eta PIEZA BEREZIEN FABRIKAZIOA

Geltoki, 13 - 36 PK - Tel.: 946 824 059 - Faxa: 946 827 980 - 48240 BERRIZ (Bizkaia)
www.tornilleria-amezua.com - jamezua@tornilleria-amezua.com

BERRIZ ARKITEKTOAK

Josu Oarbeaskoa
Patxi Ecenarro

Learreta Markina 24 behe, Berriz
T: 946 82 77 49 F: 946 55 07 60
E: o.josu@berrizarkitektoak.com

> ANTZERKIA Itsaso Esteban

Andante aurreko lanari bezala, Markeliñeren *Crusoe* berriari ere zuzeneko musikak ematen dio kutsu berezia. Roberto Castro musikariak hainbat instrumentu jotzen ditu Zornotzako antzerki taldearen ikuskizun berrian: “Bizitasuna eta bapatekotasuna ematen dizkio”, Jon Kepa Zumalde zuzendariaren berbetan. Musika ezezik, soinu efektuak ere egiten ditu Castrok zuzenean: itsasoarena, animaliena, Crusoeren pentsamenduena... Fernando Barado aktorea da Markeliñeren *Crusoe* antzezten duena. “Lan bikaina egiten du”, dio zuzendariak: “Fisikoki zein emozionalki energia handia eskatzen du lan honek”.

Klasikoa gaurkotu

Berritasuna bilatzeko betiko joeragaz, “*Crusoe* berezi bat sortzea” izan du Markeliñek helburu. Bizirauteko desioa da Daniel Dafoek XVIII. mendean idatzi zuen istorioan Robinson *Crusoe* naufragoa irla huts batean iraunarazten duen indarra. Biziraupenaren kontakizunari gaur egungo munduko hainbat errealitate txertatu dizkio Markeliñek: “Turismoak eragiten dituen kalteak, itsasoaren kutsadura, etorkinei egiten diegun harrera...”. Zumalderen berbetan, bestalde, badago istorioaren eta egungo gizartearen arteko antzekotasunik: “Bakoitza bere zilborrari begira, uharte batean bezala bizi garela, esaterako”.



Leioako Umore Azokan egin zuen Markeliñe Zornotzako antzerki taldeak ‘*Crusoe*’ antzezlan berriaren aurrestreinaldia.

‘*Crusoe*’ klasikoa gaurkotu eta kale antzezlan bihurtu du Zornotzako Markeliñe taldeak

Ekainaren 30ean Berrizen, eta uztailaren 1ean Durangon eskainiko du Markeliñek antzezlan berria

Bere lan guztiekin egiten duen bezala, antzezlan ikusi ostean emanaldian plazaratutako gaien inguruan gogoeta egitera gonbidatu gura ditu Markeliñek heldu eta umeak. “Guk istorio bat kontatzen dugu, eta aukera zabaltzen dugu gurasoek euren haurrekin gai horien guztien

inguruan berba egin dezaten: horixe bultzatu gura genuke”.

Hainbat objektu manipulatzeko dituzte sortzaileek *Crusoe* antzezteko: bi metroko titere bat baliatzen dute, esaterako. “Markeliñeren plastika eta poesia” sortzen dute, Zumaldek azaldu duenez, bitarteko horiei esker.

Emozionalki kitzikagarriak diren eszenak sortzen dituzte, ikusleari zirrara eragiten diotenak. Plastikoki oso obra ikusgarria denez, gainera, “oso ume txikiek ere gozatzen dute”. “Nerabeak harritzea lortzen du, eta istorioaren atzea ere ikusten dutenez, helduak ere ukitzen ditu”.

Leioako Umore Azokan egin zuten *Crusoe*-ren aurrestreinaldia, eta Donostian eta Tolosan estreinaldia. “Oso gustura” dauke, Jon Kepa Zumaldek dioenez, emanaldi horietan publikoak egindako harreragaz, eta gogotsu datorren astean Berrizen eta Durangon aritzeko.

Piedmont East Bay abesbatza Santa Ana plazan arituko da martitzenean

Uda Klean Bizi programazioaren barruan arituko dira, ekainaren 28an



12 eta 18 urte arteko 45 gaztek osatzen dute Kaliforniako Piedmont East Bay abesbatza.

> MUSIKA I.E.

Areto barrurako ikuskizunen denboraldia amaituta, Durangoko San Agustin kulturguneak antolatzen duen Uda Klean Bizi programazioaren barruko hitzordu musikaletako bat izango da ekainaren 28ko Santa Ana plazakoa (euria egiten badu Santa Ana eliza barruan eskainiko dute emanaldia). Piedmont East Bay abesbatza gonbidatu du San Agustinek martitzenean, 20:00etatik aurrera, Durangon kantaldia eskaintzera.

Abesbatzagaz lanean 30 urte baino gehiago daraman Robert Gearyk zuzenduko du taldea

1982an AEBetako San Frantziskoko badien sorturiko abesbatza da Piedmont East Bay. Durangora 12 eta 18 urte arteko 45 gaztek osatzen duten taldea etorriko da. Piedmont East Bay eskolan kantua irakasten 30 urte baino gehiago daraman Ro-

bert Gearyren zuzendaritzagaz arituko dira, Uda Klean Bizi programaren barruko saioan.

Mundu osoan zehar emanaldiak eskaini izan dituelako, konpositore garaikideekin elkarlanean aritzen delako, eta musika berria sortzen ere jarduten delako da abesbatza hau ezaguna.

1982an, AEBtako San Frantziskoko badien sorturiko abesbatza da Piedmont East Bay

Duela 34 urte sortu zutenetik, mundu osoko 26 herrialdetan kantatu dute Kaliforniako umeen abesbatza honetako ki-deek. Gainera, Europa, Asia eta Ipar Amerikako ia hogeikantu lehiaketatan parte hartu, eta hainbat sari jaso izan dituzte.

Ekainaren 28an Durangoko Santa Anan aritu aurretik, Bartzelonan eskaini dute emanaldia, eta Durangaldetik Valentziara joango dira beraien bira amaitutzat emateko.

> Berbaz

Xabi Otero | Jauzarreko zuzendaria | San Adrian (Nafarroa), 1953

“Euskara jatorrian biziraun duen Europa mendebaldeko hizkuntza bakarra da”

‘Jauzarrea. Identidad. Riqueza de la diversidad’ hitzaldia eskainiko du, ekainaren 28an, Abadiñoko Txanporta kultur etxean



Dani Blanco

> BERBAZ Aitziber Basauri
Euskal kulturaren azterketarako eta zabalkunderako oinarria da Jauzarrea, 27 naziotako 53 unibertsitate eta erakundetako 150 ikertzailetik gora batzen dituen proiektua. Xabi Otero Jauzarrearen helburu eta ondorioez arituko da, Abadiñon, martitzenean, 19:00etan.

Nola jaio zen Jauzarrea?
Euskaldunon identitate argi batzuz ikusi gaitzaten lortze aldera, nazioartean euskaldunen inguruan lan egin duten ikertzaileak batzea jorratu zitekeen beste bide bat iruditu zitzaigun; inoren lana (Euskal Ikaskuntza, Arantzadi...) trabatu gabe. 45 urtetik gora dira emaztea eta biok Euskal Herriko ondare historiko eta artistikoa batzen lan egiten dugula, eta lagun sare handia sortzeko aukera eman digu. Duela urte batzuk Prailehaitz (Deba) suntsitu ez zezaten sortutako mugimenduaren ondotik, kultura alor guztietara zabaltzeko beharra ikusi nuen.

Horretarako sortu zen?
Bai. Ikertzaile batzuk eta besteak batu genituen, eta horiek

“*Diotenez gizakion hizkuntzaren jatorriagaz egon daiteke lotuta euskara*”

“*Duela 45.000 urte Asia erdialdetik migratu zutenak Bizkaiko Golkoan batu ziren*”

beste batzuk ekarri zituzten. 400 lagunetik gora bildu zituzten zenbait kongresu ere eratu genituen, gu eta ikertzaileen arteko lotura sortzea bideratuz. Euskaldunak ezagutzeko aukera ere izan zuten; izan ere, mundu akademikoan Espainiako eta Frantziako hezkuntza sistema da gurea. Harreman hauen bitartez, ikertzaileek hizkuntza ere aldatu dute: euskal babeslekua, euskaldunak, Bizkaiko golkoa... diote estatuak aipatu gabe.

Garrantzitsua da hori?

Ea etorkizunean 150 ikertzaile barik 300 diren, eta ordezkatzeko dituzten instituzio eta erakundeetan horrela hitz egiten duten. Hori da Jauzarrean helburua: garen moduan ikusi gaitzate. Beste helburu bat izan daiteke, hainbat diziplina ordezkatzeko dituzten ikertzaile hauen guztien bitartez, euskara gizon-emakume guztien ondare legez izendatzea eskatzea. Hizkuntzalariek diotenez, jatorrian biziraun duen Europa mendebaldeko hizkuntza bakarra da euskara; eta, giza-hizkuntzaren jatorriagaz egon daiteke lotuta. Honetan guztian ados egonda, hori sostengatu eta erabilita, eta urteetan erakundeetan eragin da baliteke lorpen batzuk izatea.

Protoeuskara deritzona Europako lehenengo hizkuntza da hizkuntzalarien esanetan?

Biziraun dutenen artean lehenengoa, bai; inork ez daki zer zegoen aurretik. Esan daiteke hizkuntza hau hemen egon dela 30.000 urtean, eta gaur egunera arte heldu dela. Besterik egon den ez dakigu. Euskararen substratu horrek Austriatik Gibraltarrera eta britainiar irle-

tatik Alpeen hegoalderainoko lurraldea hartuko luke; Sardinia barne. Baita Frantziaren eta Iberiar Penintsularen mediterraneo ere. Euskal leinu genetikoei berresten dute hori.

‘Euskara’ proiektuaren barruan landu duzue hori?

Bai. Hala ere, dena dago lotuta hizkuntzagaz. Identitatea mantendu badugu, oraindik euskara existitzen delako da %99an. Hizkuntza da euskaldunon ezaugarriarik argiena, garbiena, eta Jauzarrean egiten dugun guztia horretan oinarritzen da, hizkuntzari balio handia ematean. Jauzarreagaz lan egiten duten hizkuntzalariek diotenez, antzinako euskara hori duela 30.000-40.000 urte hitz egiten zen, —700 hizkuntzatik gora batzen dituzten Euroasiako hizkuntzen superfamiliak sortzeko metodoak erabili dituzte—. Halaber, Stephen Oppenheimer genetikari eta idazle ingelesak adierazi du protoeuskara gizakion hizkuntza primitibo haren parte ere izan zitekeela: horren arrastoak topatu dituzte Afrikako gerriko ekuatorialean, eta hor dago homo sapiensaren jatorria, Afrikan.

Euskaldunak Europako lehenengo biztanleak izan ginen? Hori aztertzen ari zarete ‘Atlantiar’ proiektuan, ezta?

Moldatzen joan diren ikerketetan oinarritzen da gure lana. 2006an ziurtzat ematen zen duela 35.000 urte heldu zela homo sapiens Europa, eta duela urte bi 45.000 urte zirela esan zen: Asia erdialdetik migratu zuten talde haiek Bizkaiko Golkoan batu ziren —seguruenik mikroklima onagatik—, eta gero hainbat lurraldetara zabaltu ziren. Hala ere, Glaziazio Aroan babeslekua izan zuten berriz ere Bizkaiko Golkoa. Aro hori amaituta, biztanleria handituz joan zen, eta izotza desagertu ahala lurraldeak okupatu joan ziren: Britainia, Cornualles, Eskozia, Ingalaterra... britainiarren ikerketen emaitzak dira horiek: euren jatorria jakin guran, euskaldunen jatorriagaz egin dute topo. Ipar Amerikako ekialdean heldu zen giza-fluxua ere izan zen Bizkaiko Golkotik.

‘Oreina Urkian Kanata’k batzen du Euskaldunen eta Ipar Amerikako Lehenengo Nazioen arteko harreman hori, ezta?

Bai. Izotzaren ertzetik heldu ziren Ipar Amerikako ekialderaino. Han ez zegoen izotzik. Euskaldunen eta Amerikako Lehenengo Nazioen arteko harremanean sakontzeko aukera izan dugu. Iaz, DNA analisiak egiteko, bertako ia 400 lagin lortu genituen —Ingalaterran ari dira horretan—. Horiakin erakutsi gura da lurralde hartan euskal leinu genetiko dagoela. Esan behar da baita ere, solutreako kultura dela bakarra euskal leinua haraino nola heldu zen argitzen duena. Kultura solutrear hori euskal babeslekuan baino ez zegoen, Bizkaiko Golkoan.

Europako zaharrenak dira euskaldunak eta euskara?

Bai, luzaroan iraun dutenak dira, behintzat. Leinu genetikoak duten Europako bakarrak dira euskaldunak, eta, leinu horrek, gainera, bere kultura eta hizkuntza mantendu ditu. Irlandarrek, adibidez, %90 dute euskal leinua, baina, ez dute euskal kulturarik mantendu.

Tania Calvo (Gasteiz, 1992) | Berrizko Eustrak-Euskadi taldeko pistako txirrindularia |

“*Esperientzia falta amets bat betetzearen ilusioagaz konpentsatuko dut*”

Berrizko Eustrak Euskadi taldeko txirrindulari gaztea Rioko Joko Olinpikoetan arituko da

➤ **PISTA** Joseba Derteano

Azken urte bietan egin duen gorakada harrigarria da: iazko Espainiako txapelketan irabazitako lau urrezko dominak, munduko txapelketako hirugarren postua eta Europako azpitxapelketa daude bere lorpen garantzitsuenen artean. Orain, bere lehenengo Joko Olinpikoen atarian dago. Emakumeen proba denetara sailkatzea lortu du: abiadura proba taldekoa, eta Keirin eta 200 metrokoa bakarrik. Oraindino bere mugak bilatzen dabil, baina diploma olinpikoa buruan duela joango da Riora.

Hile eta erdi falta da Rioko Joko Olinpikoetarako. Zelan doaz preskuntza fisikoa zein mentala?

Ondo doaz. Lan fisikoari dagokionez, orain lan karga handiagoa egiten ari gara, ondoren apur bat leuntzeko eta lehiara freskoago heltzeko. Prestaketa mentalari dagokionez, ilusio handia daukat, eta ilusio hori lagungarri zaidala uste dut. Ikusiko dugu eguna hurreratu ahala zelan nagoen.

Zer helburu dituzu Joko Olinpikoetan parte hartuko duzun proba bakoitzean?

Aurreren egoteko aukerarik handienak taldekako abiadura proban ditugu. Zortzi onenen artean, hau da, diploma olinpikoa lortzeko moduan egon gaitzkeela uste dugu. Beste bietan aurrean egotea itxaroten dut, baina edozer gertatu daiteke. Ez diot loteria bat direnik; indartsu bazaude aukera gehiago dituzu, jakina, baina buruz burukoa edo bosten kontrakoa izanik, ezustekoak gertatu daitetzke. Taldekako abiaduran, berriz, denbora markatzen duzu, eta kito.

Zu baino esperientzia handiakogoen kontra jardungo duzu. Gaztetasunari zer etekin aterahal diozu?

Orain arte lehiatu ditugun beste hainbat konpetizioen antzekoa izango dela pentsatu gura dut. Azken batean, aurkariak betikoak dira, aurpegi berdinak izango ditut aurrez aurre, askotan aritu naiz eurekin lehian. Esperientzia falta amets bat betetzearen ilusioagaz konpentsatuko dut.

Zeintzuk dira zure indarguneak?

Azelerazio ona duen txirrindularia naiz; hau da, abiadurarik bizienera denbora gutxian heltzeko kapaz naiz. Lehen, ondo moldatzen nintzen abiadura horri luzaroan eusten, baina orain, batez ere taldekako abiadura probari begira, beste era bateko entrenamenduak egiten ari gara. Azelerazioan gehiago zentratzen gara.

Nork esango zizun orain urte bi gaur zauden tokian egongo zirela. Gora eta gora egin duzu. Aurreko ziklo olinpikotik kanpora geratu nintzen; hortaz, olinpiada hauetarako gogo gehiago nekarren, eta kontu gehiagogaz prestatu dut dena.

Lorpen puntualdez haratago, erregularitasun fidagarria erakutsi duzu azken urte bietan. Erregularitasuna oso garrantzitsua da, eta, askotan, lortzeko zailena ere bada. Edo ez zaude %100ean, edo kanpo faktoreek eragiten dizute, edo gaixotu egin zara... denak eragiten du errendimenduan. Alde horretatik, zortea izan dut, eta txapelketa denetara sasoiari joan naiz.

Raul Mena Eustrak Euskadiko arduradunak aipatu izan du oso zorrotza zarela zeure buruagaz. Batzuetan, lorpenak gozatzea kosta egiten zaizula. Beti nabil zertan huts egin dudana eta zertan hobetu dezakedan pentsatzen. Hori egia da. Kirolari batek etengabe autoebaluatzen egon behar duela uste dut. Ingurukoek lagundu egingo dizute, baina norbe-



re burua norberak ezagutzen du ondoen.

Hala ere, oraindik zure gaitasun fisikoak garatzen ari zara. Zure ahalmenaren gorena hurrengo Joko Olinpikoetan etorri daiteke?

Hori uste dut. Profesionaletan nagoenetik, urterik urte hobeto sentitu naiz, sasoi hobean. Oraindik, hobetzeko tarteak badudala uste dut, eta hemendik lau urtera nire gaitasun gorenetik gertuago egongo naiz, beharbada.

Zure ibilbideko askotariko lorpenetatik badago baten bat zuretzat esanahi berezia izan duena?

Lorpen denak dira pozgarriak, baina, beharbada, Europako azpitxapelketa bereziki pozgarria izan zitzaidan, ez nuelako espero. Sailkatze proban bosgarren denborarik onena markatzen nentzen. Batzuetan, norbera eta besteak sasoiak dauden ala ez kalkulatu dezakezu, baina txapelketa hura uda osteko lehe-

“*Kirolari batek etengabe autoebaluatzen egon behar duela uste dut*”

nengoa zen, eta ez geneukan elkarren berririk. Ustekabeak izan zen.

Eta iaz Espainiako txapelketan lortutako lau urrezko dominei buruz zer diozu?

Espainiako txapelketan Helena Casasen eta bion artean egoten dira dominak. Ez nuen egun txarrik izan, indartsu nindoan, eta lau urreak irabaztea lortu nuen.

Normalean zure arerio nagusia den Casas taldekide izango duzu Rioko abiadura proban. Elkarrekin entrenatzen zarete?

Espainiako selekzioagaz egiten ditugun kontzentrazioetan

elkarrekin entrenatzen gara, bai. Bestela, bera Madrilen entrenatzen da, eta ni Mallorcan. Bakoitzak bere kontura egin dezakegun lana da.

Mallorcan errendimendu handiko zentroa dago, eta han bizi zara gaur egun. Gasteiz hotzetik Mallorca berora ohitzea kosta egiten da?

2010etik bizi naiz han. Hara egokituta nago, baina hasieran kostatu egin zitzaidan, bai. Gasteizen hotz handia egiten du, eta lehorra da; Mallorca, aldiz, beroa eta hezetasun handikoa. Hasiera ez zen erraza izan.

Berrizko belodromoan askotan jardun duzu?

Bai, etxera itzultzen naizen bakoitzean Berrizko belodromoan joaten saiatzen naiz. Pista gogorra du. Zementuak heldu egiten du bizikletari, eta aurrera egitea kosta egiten da sarritan. Egia esanda, gustatzen zaidan belodromoak da. Beti ez gara pista samurretan ibilikoa, ezta?

Elorriok Munduko Paracycling Txapelketako lasterketa bat hartuko du uztailan

Europa osoan modalitate honetako proba bi baino ez dira egongo aurtengo denboraldian

> PARABIZIKLETA J.D.

Uztailaren 16an Elorriok bere gain hartuko du UCI-ren —txirrindularitzaren erakunderik garrantzitsuenaren— Mundu-

ko Paracycling Txapelketarako baliogarria den lasterketa bat. Txapelketa horretan, desgaitasun kognitibo edo motorra duten txirrindulariek hartzen

dute parte, eta Elorriora munduko askotariko herrialdeetatik etorritako txirrindulari onenak etorriko dira.

Aurtengo denboraldian 'UCI

Paracycling World Cup 2016'eko bi lasterketa soilik egingo dira Europa osoan. Modalitate horretako munduko lasterketarik entzutetsuena da berau, eta bi

horietatik bat Saiatu Fundazioak antolatuko du, uztailaren 15, 16 eta 17an Bilbon, Gasteizen, Mungian eta Elorrioren.

Duela 19 urtetik hona Saiatu Fundazioak Paracycling Bira antolatzen dihardu, eta dagoeneko bere tokia egin du txirrindularitzaren nazioarteko egutegian. Hori dela eta, UCIk erabaki du Biraren XX. urteurrena Munduko Txapelketarako baliogarri izatea, modalitate honetako munduko lasterketa garrantzitsuenak, hain zuzen. Elorrioren izango diren lasterketetan handbike eta trizikloetan ibiliko dira.

Dani Palacios Elorrioko Kirol zinegotziak Elorrioren izandako Biraren aurreko edizioek izan duten harrera ona adierazi du, baina oraingoan kalitatean jauzi bat emango dela: "Bi hilabete geroago Joko Paralinpikoei izango diren txirrindulariez gozatzeko aukera izango dugu".

Antolaketa lanetan herritarren laguntza eskatu dute. Elorrioko herritarrek lasterketa bere sentitu dezatela gura dute antolaketako askotariko beharrezanetan parte hartuz. Gura duenak helbide elektronikoko honetan erakutsi dezake bere interesa: kirola@elorrio.eus.



Handbike (ezkerrean) eta triziklo (eskuin) modalitateetan txirrindulariek parte hartuko dute Elorrioren.

Bizikletan zein duatloian goi mailan Mavi Garcia

Espainiako Txapelketan brontzea irabazi du eta Kopan aurrean dago; duatloian onenen artean dabil

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Bizkaia-Durango taldeko Mavi Garcia (Mallorca, 1982) goi mailako txirrindularia izateaz gain, munduko duatletarik onenetakoa da. Espainiako Kopan hiru garaipen daramatza, eta sailkapen nagusia irabazteko aukerak ditu. Gainera, Espainiako txapelketan brontzezko domina kolokatu zuen atzo erlojupekoan (Lourdes Oyarbidek ere brontzea kolokatu zuen 23 urtez azpikoan). Ekain hasie-

ran, berriz, munduko duatloi txapelketa hirugarren tokian amaitu zuen, Avilesen.

Bizkaia-Durangoen aurtengo helburu nagusienetakoa Mavi Garciagaz Espainiako Kopa lehiatzea da. Denboraldi hasieran esperantza hori zuen Agurtzane Elorriaga taldeko zuzendariak, eta denborak arrazoia eman dio. Kopako zazpi proba izan dira orain arte. Garciak horietako bostetan parte hartu du, eta hiru irabazi ditu. Kopa

amaitzeko lasterketa biren faltan, sailkapen nagusian bosgarren dago, eta azken unera arte lehiazteko asmoa du: "Irabazteko aukerak ditugula uste dut. Saiatu beharra dago", adierazi du Garciak.

Joan zen asteburuan, Entrenan (Errioxa) erakustaldia eman zuen azken txanpan. 15 kilometroren faltan ihes egin, eta bakarrik helmugaratu zen.

Duatloiko lorpenak ere merituz itzela du. Horretatik bizi diren Emma Pallant eta Andrea Steyn lako atleta handiekin nor baino nor gehiago aritu zen azken kilometroraino. Mundu mailako bere lehenengo lorpen handia izan zuen. Aurretik, 2013tik hona, Espainiako txapelketan hainbat domina irabazi ditu.



Mavi Garcia Espainiako Kopako lasterketa batean. Bizkaia-Durango

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK



Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017



Etxebizitzak salgai 1, 2, 3 eta 4 logelatakoak



KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

Durangoko herrigunean

Energia eraginkortasun handiko etxebizitzak

Hiriko txaletak

Oiz mendira begiratokiak

Leku zabalak

**Etorri
ikustera!**

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673

Kontsultatu beste aukerak Iurretan, Elorrión eta Durangon

Gaurtik igandera, bizikletaren unibertsoa Durangon kontzentratuko du BIBE azokak

Landako Erakustazoka munduko markarik onenen erakusleho bihurtuko da; azokaren harira, Durangon hasi eta Urkiolan amaituko den 180 kilometroko bizikleta martxa antolatuko dute bihar



2014ko lehenengo aldiak 18.000 lagun batu zituen Barakaldoko BEC-en.

> BIZIKLETA J.D.

Durango errubera biko unibertsoaren erdigune bihurtuko da gaurtik domekara. BIBE azokak bizikletari lotutako markarik onenetakoak batuko ditu Landako erakustazokan. Sektoreari lotutako 100 bat markak (Giant,

Specialized, Colnago, esaterako) beren postua izango dute.

BIBE azokak bigarren aldia izango du. Lehenengoa 2014an izan zen, Barakaldoko BEC-en, eta 18.000 lagun inguru batu zituen. Aurreikuspen denak apurtu zituen orduko arrakasta-

Azokak bigarren aldia izango du. Lehenengoak 18.000 lagun batu zituen Barakaldoko BEC-en

ren ostean, antolatzaileek asko zaindu dute bigarren aldiko eskaintza. Horrela, bizikleta bere adierarik zabalenean hartuko duen azoka antolatzen saiatu dira. Esaterako, azokak bizikletaren munduko hainbat arlori bideratutako guneak izango ditu: zerbitzu biomekanikoaren gunea, bizikleta-bidaiena, bizikleta eramateko tresnena...

Beste nobedade bat gazteei zuzendutako gunea da: bizikletan osatu beharreko oztopo probarako zirkuitua, patinete zein roller-etan ibiltzeko arrapalak...

Bizikleta martxa Urkiolara

Aurtengo nobedade nagusienez, bat azokaren harira bihar lehenengoz antolatuko duten BIBE Transbizkaia Iraupen Luzeko bizikleta martxa da. 08:00etan Landako Erakustazo-

ka paretik irtengo dira txirrindulariak, eta 180 kilometroko ibilbidearen ostean, Urkiolako santutegian amaituko da martxa. Gipuzkoatik egingo dituzten 20 kilometroak kenduta, gainerako ibilbide osoa Bizkaitik izango da, eta tartean zortzi mendate igoko dituzte: Kanpazar, Ixua, Milloi, Astorkigane, Sollube, Gerekiz, Muniketa eta Urkiola. Probak 300 bat parte-hartzaile izango ditu.

Bizikleta eguna

Duranguesa txirrindulari elkartek urtero antolatzen duen Bizikleta Eguna BIBE egitarauaren barruan dago aurtengoan. Bihar, 11:00etatik aurrera, ibilbide bi prestatu dituzte. 6-10 urte artekoentzako lehenengoan mountain bikegaz, errepideko bizikletagaz zein paseoko bizikletagaz egin daiteke Muntzaraterako joan-etorria. 10-16 urte artekoentzako ibilbidea mendiko bizikletan egin beharra dago, mendi bideetatik ibiliko dira eta. Izen-ematea doakoa da, eta 10:30etik aurrera egin daiteke. Ostean, puzgarriak, BMX erakustaldia... egongo dira.

Euskal Herriko 15 xake talde Elorrioko torneoan

Partida azkarren txapelketa jokatu dute zapatuan

> XAKEA J.D.

Udako egunak xakea kalera eta jendartera ateratzeko erabiltzen ditu Elorrioko Zaldi Baltza taldeak. Orainatsu gaztetxoentzako lehiaketa bat antolatu du udal txeko arkupeetan. Zapatu honek ere toki berean batuko dira, eta oraingoan partida azkarren xake txapelketa prestatu dute.

16:00etatik 20:00etara 15 xake talde lehiatuko dira. Gehienak

Bizkaitik datoz, eta tartean Durangaldekoak daude: Zaldi Baltza, Mendraka, Zornotza eta Abadiño. Gipuzkoatik Eibar-ko eta Azkoitiko taldeek parte hartuko dute. Parte-hartzaileen zerrenda Nafarroako (Burlata) eta Kantabriako (Castro) talde banak osatuko dute.

Elorrioko Udala, Iturizoroko elkarte eta Mendraka upategia ekimeneko laguntzaileak dira.

> BTT MARTXA J.D.

Durango MTB Taldeak Sapubike Martxa antolatuko du domekan. 09:00etan irtengo dira Tabiratik. Urterik urtera gero eta arrakasta handiagoa duen martxa da. 400 lagunentzako toki zuten, eta dena beteta dago. Bi ibilbide prestatu dituzte: 39 kilometroko (1.600 metro desnibela) eta 29 km-ko bana. Ohiko lekuez gain (Neberondo, Landaderra...), bidezidor berrietatik ere ibiliko dira: "Zeresan handia emango duen gune berri bat dugu. Seguruenez, hurrengo aldietan ere ibilbidearen parte izango da", diote antolatzaileek.

400 bizikletari eta hainbat sorpresa Sapubike martxan

Izen-ematea beteta dago eguaztenaz geroztik



Ibilbidean ezaugarri desberdinetako bideetatik ibiltzen dira. DurangoMTB

Aitor Mimenzak distira egin du Getxoko gauean

Getxoko Night Running Series proba irabazi du

> KORRIKA J.D.

TomTom Night Running Series zirkuitua sei lasterketek osatzen dute. Getxoko zirkuituko gaueko hirugarren proba hartu zuen zapatu iluntzean. 10 kilometroko proba nagusian Aitor Mimenza elorriarrak (Durango Kirol Taldea) irabazi zuen gizonetan. 30.25eko denbora erabili zuen ibilbidea osatzeko.

Mimenzagaz batera zornotzar bi ere protagonista izan

ziren. Iñigo Olanok hirugarren amaitu zuen 31.05eko denbora eginda. Beragaz batera, eta laugarren tokian, Iñaki Pujana helmugaratu zen (31.06).

Bizkaiko zubian irabazle

Mimenza sasoian dago. Asteburuko garaipena apirilean Portugaleten lortutakoari gehitu behar zaio. Orduan, Bizkaiko Zubia proban gailendu zen hasieratik ihes eginda ibilita.

Ikasleek maisua txapela irabazten ikusi dute

Unai Agirrezabalek irabazi du Durangoko finala



Txapelketa bietako irabazleen familia argazkia.

> PILOTA J.D.

Joa zen zapatuan esku pilotaren inguruko jai handia izan zen Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Durangoko pilota eskolako eta Peter-en Oroimenezko txapelketako finalak jokatu zituzten bata besteari atzetik. Azken horretan, pilota eskolako gaztetxo den animoak Unai Agirrezabalentzat izan ziren. Beren maisua da pilota eskolan, eta irabazten ikusi gura zuten. Eta irakasleak ez zien hutsik egin. Partidu bikaina jokatu zuen, gutxi galduz eta asko amaituz. Gaizka Lopez eta biek 22-18 menderatu zituzten Legorburu eta Bilbao.

Gaztetxoaren finaletan Liher Nogueiras, Gorka Sagarna eta Sergio Areitio nagusitu ziren.

BERRIArekin, uda gozagarri

Sari apartak ditugu:



Astore etxearen
euskal selekzioaren
bost elastiko



Akelarre jatetxean
**bi lagunentzako
otordua**
*Astelehenetik ostiralera



Zuberoa jatetxean
**bi lagunentzako
otordua**



Hiru hilabeteko
**bost BERRIAlagun
harpidetza**

Parte hartu zozketan

uztailaren 5a
baino lehen!

> berria.eus/zozketa

Astebeteko bidaia Lanzarotera bi lagunentzat

*Hegaldia Bilbotik eta behe denboraldian



berria
mundua·euskarari·emana

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1. ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

ETXEBITZAK ALOKAIKUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

DURANGO. Errotaritxueña Atiko zoragarria 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

ATXONDO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

ELORRIO. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxia.

DURANGO. -Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

DURANGO. ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€-tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trasteleku.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trasteleku.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trasteleku.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m²-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m²-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitze baimenarekin, 1.000 m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalea bifamiliarra bat eraikitze baimenarekin, 3.000 m² inguruko azalerarekin.

AMOREBIETA. LARREA. 27.000 m²-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. GAZTELUA. Baserririk ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m²-ko lursaila baserriaren ondoan.

BERRIZ. Txalea 1.200 m²-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

ATXONDO. Baserririk ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m²-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliarra ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m²-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserririk bifamiliarra berriztatze baimenarekin. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatze baimenarekin.

BERRIZ. Baserririk ederra, Murgoitio zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobea.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBITZAK SALGAI

ABADIÑO - ARLOZABAL



• Etxebizitza eraiki berria. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea jarrita, garajea eta 2 trasteleku. Oso argitsua eta ikuspegi onekin. **167.000€.**

IURRETA - BIXENTE KAPANAGA



• 92 m² erabilgarri. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, komun bat, 40 m²-ko terraza. Berriztatzea behar du. Igogailuarekin. Berogailua gas naturalarekin. **165.000€** / Negoziagarria.

IURRETA - URALDE: DOTOREA!



• 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, komuna. Berogailua gas naturalarekin eta igogailua. DENA GUZTIZ BERRIZTUA. **120.000€.**

MATIENA - TXINURRISOLO



• 65 m²-ko etxebizitza. 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, komuna jarrita eta 6 m²-ko ganbara. Guztia jarrita. **130.000€** / Negoziagarria

GOIENKALE



• 67 m² erabilgarri. Bizitzera sartzeko moduan. Eguzkitsua eta argitsua. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, komuna eta ganbara. **133.000€.**

MATIENA



• Etxebizitza guztiz berriztatua. Guztia kanpora begira eta oso eguzkitsua. 2 logela, komuna, egongela, sukaldea jarrita. Altzariz jantzita. Aparkaleku etxe aurrean, eta trasteleku handia. **99.000€.**

www.inmoduranguesado.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AUKERA

- DURANGO. (Zeharmendietan) 3 logela. Komuna. Egongela. Berogailua. Bizitzera sartzeko moduan. 85.000€.

- KURUTZIAGA. 3 logela, komuna eta balkoi. 130.000€.

- AZKEN ETXEBIZITZA. Estreinatze baimenarekin. 3 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea. Terraza. Trasteleku. Garajea. 159.000€.

- MATIENA. Laubideta k/. 4 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Garajea aukeran. AUKERA. 155.000€.

- A. ESTEGIZ. 2 logela. Komuna. Egongela. Sukaldea. Ganbara. Igogailua. Eguzkitsua. 90.000€.

- IURRETA. 3 logela. Igogailua. Berogailua. 115.000€.

ETXEBITZAK SALGAI

- M. TORRE. 134 m². 4 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela terrazarekin. Trasteleku. 2 garaje. 270.000€.

- IZURTZA. 2 logela. Komuna. Egongela. Bizitzera sartzeko prest. 85.000€.

- IURRETA. Maspe. 3 logela. 110.000€.

- TABIRA. 2 logela. Komuna. Egongela. Guztia berriztatua. 125.000€.

- TROMPERRI. 4 logela. 2 komun. Egongela. Ganbara eta garajea. Txoko komunitarioa. 243.900€.

- TABIRA. Erdi-berria. 3 logela. 2 komun. Egongela-sukaldea. Terraza. 285.000€.

- KOMENTUKALE. 4 logela. Komuna. Egongela. 125.000€.

- MENDIZABAL. 131 m². 3 logela. 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea itxia. 270.000€.

- IURRETA. DENA BERRIA. 3 logela. Komuna. Egongela. Sukaldea. Berogailua. Igogailua. Trasteleku. 155.000€.

- F.J. ZUMARRAGA. 100 m². 4 logela. 2 komun. Ganbara eta garajea. 236.000€.

- IURRETA. ELIXALDE. BERRIA ESTREINATZEKO. 100 m². 2 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekutokia. Egongela terrazarekin. Ganbara, eta garajea itxia. 245.000€.

- M. TORRE. 134 m². 4 logela. 2 komun. Sukalde-jangela. Egongela terrazarekin. Ganbara. Bi garaje toki. Eguzkitsua. 299.000€.

- MIKELDI. Etxebizitza altua. Erdi berria. 3 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea esekitokiarekin. Trasteleku. Garajea. 270.000€.

- EZKI. 2 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Trasteleku. Zelaiarekin. 170.000€.

- MATIENA. Trañabarren. 3 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Ganbara. 196.900€.

- AMOREBIETA. 70 m². 2 logela. Komuna. Berriztatua. 160.000€.

- ATICO. 35 m²-ko terrazarekin. 2 logela. Komuna. Egongela. Ganbara eta garajea.

- S. IGNACIO. 3 logela. 2 komun. Terraza. Trasteleku. Garajea. 230.000€.

- A. EZTEGIZ. 3 logela. Komuna. Sukaldea. Egongela. Igogailua. 155.000€.

- ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Komuna. Egongela. 2 terraza. Igogailua. 140.000€.

- ZUMALAKARREGI. 65 m². (Bulegoa izateko egokia).

LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIKUAN

- F.J. ZUMARRAGA. 114 m². SALGAI. 200.000€.

- IBAIZABAL. 50 m². Guztia jarrita. 500€.

- KOMENTUKALE. 50 m². Guztia jarrita. 85.000€.

- IBAIZABAL. 55 m². Guztia jarrita. Alokairua / Salmenta.

- ERDIALDEAN. 228 m². Salmenta. 182.400€ (sartze baimenarekin. Negoziagarria.)

- DURANGO. TABERNA maritxan. 95 m². 186.000€.

LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIKUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DEHETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu: www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak ETXEBIZITZAK

SALDU

Mallabia. Aukerakoa, nekazaritzarako edo nekazaritza-turismorako, toki eguzkitsu eta ederrean, 20.000 m2 lursail. Prezio egokia, ikusi nahi baduzu, deitu. Tel.: 655-70 26 47 (19:00-21:00). Nahi izanez gero, aukera dago lursail gehiago eskuratzeko.

ERRENTAN EMAN

Torreveija (Alacant). Torreveijan bungalowa alokatzen da. 3 logela, egongela, igerilekuak eta berdeguneak. Familientzako egokia. Tel.: 615-77 96 22.

Etxebarri. Etxebarrin etxea terrazarekin alokagai. Sukaldea, egongela, bainu bat eta logela. Hornituta. 550 euro. Tel: 647-36 98 76.

Zaldibar. Zaldibarren apartamentu bat alokatzen da. Logela bat, sukalde jangela eta bainugela, garajeetan lokal itxi bat, igogailua, bi kaletara leihoak. Bikote batentzako aproposa. Interesa baduzu, deitu telefono honetara: 664-10 27 91.

ERRENTAN HARTU

Durango. Durangon pisu bila dabilen bikote langile bat gara. Mila esker. Birazabal@gmail.com / Tel.: 653-72 43 19 (Beñat)

PISUA KONPARTITU PISUKIDE BILA

Durango. Kaixo, 31 eta 35 urteko neska euskaldun bi hirugarren pisukide jator baten bila gabiltza, Durangon, merkatu plazaren ondoan dagoen 3 logelako etxe batean. 200 euro inguru hilean, gastuak barne (etxe dana 500 euro dira, kontratuarekin). Uztailetik aurrera (uda ondoren ere izan daiteke, uztailetik aurrera nahiago dugun arren). Interesa izanez gero, kontaktatu gurekin telefono zenbaki honetan: 667-92 38 91 edo mugurdiurdinak@hotmail.com helbidean.

GARAJE / TRASTEROAK SALDU

Durango. Durangoko Montebideo kalean, Jesuitetako 2. solairuan garaje bikoitza salgai, irekia, baina ixteko aukerarekin. 27,87 m2. 32.000 euro (negoziagarriak). Tel.: 695-71 00 27.

Teknologia GAINERAKOAK EMAN

Bidali zure ordenagailua. Zure ordenagailua hondatuta badago, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, jaso, konpondu, eta Federación Niños del Mundo elkartearen bitartez bidaliko dugu Boliviako eta Peruko ospitaleetara eta eskoletara.

Tel.: 655-71 76 66.

Lana - negozioak LAN ESKARIAK ETXEKO LANAK

Elorrio. Emakume arduratsuak etxeko lanak egiteko eskaintzen du bere burua. Esperientzia handia. Erreferentziaduna. Tel.: 688-92 75 58. juliachans67@gmail.com.

PERTSONAK ZAINDU

Durango. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Praktikak egin ditut erresistentzian. Tel.: 652-23 82 60.

Durango. Emakume arduratsua prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Barruko edo kanpoko langilea. Orduka ere lan egiten dut. Sukalde laguntzailea ere bai. Tel.: 651-94 14 57.

Elorrio. Gizon euskalduna, klinikako tekniko laguntzailea eta etxeko laguntzailea prest dago adinekoei laguntzeko (egun osoan) edota lagun egiteko (etxean zein zahar egoitzan), erosketak egiteko eta abar. Prezioa: paseatzera 4.85 euro/2 ordu. Aste osoa: 40 euro. Mugitzen laguntzeko: 10 ordu egunero. Aste osoa: 65 euro Elorrian. Durangaldean. Tel.: 690-28 60 71. Posta: elorrixak@yahoo.es.

Durangaldea. Lan bila nabil. Umeak zaintzen, nagusiak,

garbitasunean...
Tel.: 632-70 81 59.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut barneko langile moduan. Tel.: 602-16 92 35.

Durangaldea. Lan bila nabil garbiketan, nagusiak zaintzen zein umeak zaintzen. Tel.: 665 516 539 (Ana)

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Tel.: 632-08 60 75.

Durangaldea. Lan bila nabil garbiketan, nagusiak zaintzen zein umeak zaintzen. Tel.: 632-70 81 59.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Barruko edo kanpoko langile moduan. Tel.: 632-51 61 91.

Durangaldea. Umeak edo nagusiak zaintzen lan egin nahi dut, baita garbiketan ere. Orduka, egun osoan, edota gauzez ere. Tel.: 692-34 52 15.

Durangaldea. Gizon arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo baserriak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Berehala hasteko moduan. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 697-23 76 00.

Durangaldea. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketan ere

jarduten dut. Barneko edo kanpoko langilea. Orduka eta lanaldi erdi ere bai. Tel.: 677-77 00 08.

IRAKASKUNTZA

Durango. Irakurketa, idazketa, ulermena, ikas teknikak (lan ohiturak, motibazioa, planifikazioa...). Banaka edo taldeka. LH, DBH, batxilergoa. Esperientzia. Tel.: 656-79 15 99.

GAINERAKOAK

Durangaldea. Lorezaintzan, obran edo baserrian lan bila nabil. Aste bitartean edo asteburuetan. Orduetegi zabala. Tel.: 602-16 48 06.

LAN ESKAINTZAK OSTALARITZA

Berriz. Berrizen asteburuetan lan egiteko sukaldaria behar da. Tel.: 946-82 40 27.

GAINERAKOAK

Durangaldea. Durangaldeko enpresa batek administrazio eta finantzarako goi mailako teknikaria behar du enpresaren administrazioa eramateko. Ezinbestekoa euskaraz lan egiteko gaitasuna. Jardunaldi osoko lanpostu egonkorra da. Berehala lanean hastea aurreikusten da. Bidali cv-ak laneskaintzak@gmail.com helbidera.

Denetarik SALDU / EROSI

Txakurkumeak. Ardi-txakur alemaniar arrazako txakurkumeak salgai. Tel.: 635-70 52 18.

Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.

Pertsonalizatu, zure herria aukeratuz.

DESKARGATU DOAN !



anboto.org
MUGIKORREAN



ibaizabal DURANGOKO IBAIZABAL IKASTOLAK ZUZENDARI OROKORRA BEHAR DU

EZINBESTEKOAK:

- Goi mailako unibertsitateko titulua izatea (lizentziatura edo gradaa).
- Esperientzia kontrastatua, ekonomian eta kudeaketa arloan (gutxienez 3 urtekoa).
- Hezkuntza sektorea ezagutzea.
- Euskaran C1 eskakizuna.
- Ikastolen elkartearen ezagutzea.

BALORATUKO DA:

- Talde dinamikan eskarmentua izatea.
- Euskal kulturaren ezagutza izatea.
- B1 eskakizuna hirugarren hizkuntzan.

CURRICULUMAK AURKEZTEKO EPEA: ekainak 30 artekoa
NORA BIDALI: zuzendaria@ibaizabalikastola.eus

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Ekainaren 24an, 20:30ean, Durangoko Bartolome Ertzilla kontserbatorioan

Leioako abesbatza

Leioako San Juan Bautista abesbatzaren doako emanaldia izango da, gaur, Basilio Astulezen zuzendaritzapean, Durangoko Bartolome Ertzilla Kontserbatorioan. Duela lau hamarkada Leioako kotserbatorioan sorturiko San Juan Bautista taldeak 25 kantari gazteren ahotsak biltzen ditu.



Musika

:: BERRIZ

EKAINAREN 24an

20:00etan, Jabier Muguruza 'Tonetti anaiak' diskoa aurkezten, San Juan ermitan.

22:00etan, Appraise, Worth It, eta Maradona, Hiltegiixe Gaztetxean.

:: DURANGO

EKAINAREN 24an

20:30ean, Leioako San Juan abesbatza, Bartolome Ertzilla kontserbatorioan.

EKAINAREN 28an

20:00etan, Piamond East Bay abesbatza amerikarra, Santa Ana plazan.

:: ZORNOTZA

EKAINAREN 24an, 25ean eta 26an

Haizetara fanfarre, banda eta kale musikarien nazioarteko jaialdia, herrian zehar.



Antzerkia

:: DURANGO

UZTAILAREN 1ean

18:00etan, Markeliñe taldearen 'Crusoe', Musika Eskolako parkean.



Erakusketa

:: ELORRIO

EKAINAREN 30era arte

Homofobia iraganeko kontua da erakusketa, Iturri kultur etxean.



Jaiak

:: DURANGO (Sorginola gaztetxearen urteurrena)

EKAINAREN 24an

18:00etan, txupinazoa eta bertsolariak balkoitik balkoira.

18:30ean, 'Nor haiz' antzezlan.

21:30ean, La Ranura kontzertuan.

EKAINAREN 25ean

19:00etan, Fritanga elektrotxaranga.

21:00etan, luntxa.

22:00etan, Kohatu, Monkday, Aneuria eta DJ Zenn & Iker Undersound.

EKAINAREN 26an

17:00etan, abentura jolasak.

20:30ean, kontzertu akustikoa.

EKAINAREN 27an

12:30ean, kalejira girotua Santanatik Sorginolara.

14:00etan, gazte bazkaria.

16:00etan, 'Fundifestetik nora?' bazkalosteko tertulia.

18:00etan, Fundifes-eko langile ohiekin mahai-ingurua.

18:30ean, 'Urtebetez ametsak loratzen' bideo emanaldia.

:: DURANGO (Tabira)

EKAINAREN 24an

09:00etan, txistulariak.

15:00etan, herri bazkaria.

19:00etan, txupinazoa eta txalaparta emanaldia.

19:30ean, Tronperri dantza taldea.

20:00etan, tortilla jana eta Juantxu taldearen erromeria.

22:00etan, DJ Juan.

EKAINAREN 25ean

09:00etan, spininga eta marmitakoa.

10:00etan, gaztelu puzgarriak, ohe elastikoak eta padel txapelketa.

14:00etan, marmitako lapikoen aurkezpena.

16:30ean, umeen jolasak.

17:00etan, partxis txapelketa.

20:00etan, sari banaketa eta Mar.is.k.a.l.DeJai.

EKAINAREN 26an

12:00etan, ardi-txakurren erakustaldia.

13:00etan, Durangaldeko Bertso Eskolako ena saioa.

16:30ean, umeentzako jolasak.

17:00etan, zunba maratokia.

20:00etan, bizikleta zozketa eta 'upel hilketa'.

EKAINAREN 29an

17:00etan, meza nagusia.

17:30ean, pintxo jana.

:: MALLABIA (Goit'a auzoa)

EKAINAREN 24an

12:00etan, meza, auzoko hilerriaren aurkezpena eta luntxa.

17:00etan, briska txapelketa, eta ondoren, txokolatada.

EKAINAREN 25ean

18:00etan, ume eta nagusientzako jolasak.

20:00etan, patata-tortilla lehiaketarako tortillen aurkezpena.

22:00etan, probak.

EKAINAREN 26an

11:00etan, meza eta dantza emanaldia, eta motozerra eta trontza erakustaldia.

14:30ean, paella txapelketarako paellen aurkezpena.

17:30ean, umeen jolasak eta tute txapelketa.

19:00etan, bola txapelketa.



Berbaldia

:: ABADIÑO

EKAINAREN 28an

19:00etan, Xabi Otero Jauzarrea proiektuko kidearen 'Identidad: riqueza de la diversidad' berbaldia, Txanporta kultur etxean.

:: DURANGO

EKAINAREN 28an

18:15ean, Ana Martinen 'Así pensamos, así envejecemos' berbaldia, Adinekoen zentroan.




Dantza

:: ELORRIO

UZTAILAREN 1ean

22:30ean, Jesus Herreraren 'Dantzari', plazan.



:: DURANGO | ZUGAZA

Buscando a Dory



- **barikua 24:** 19:30/22:00
- **zapatua 25:** 17:00/19:30/22:30
- **domeka 26:** 16:30/19:00/21:30
- **astelehena 27:** 18:30/21:00
- **martitzena 28:** 20:00

Dioses de Egipto

- **barikua 24:** 19:30/22:00
- **zapatua 25:** 19:30/22:30
- **domeka 26:** 19:00/21:30
- **astelehena 27:** 18:30/21:00
- **martitzena 28:** 20:00

Eddie el águila

- **barikua 24:** 19:30/22:00
- **zapatua 25:** 19:30/22:30
- **domeka 26:** 19:00/21:30
- **astelehena 27:** 18:00
- **martitzena 28:** 20:00

Ninja Turtles. Fuera de sombras



- **zapatua 25:** 17:00
- **domeka 26:** 16:30

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

Dioses de Egipto

- **barikua 24:** 20:15
- **zapatua 25:** 22:00
- **domeka 26:** 20:00
- **astelehena 27:** 20:15

EKAINENKO AGENDA



Iurreta
Elizateko Udala

28

KULTURA SAILA KASKOAN

11:00 Iurreta Chef! Lehiaketa-Gynkana Iurreta Hanburgesa egiteko. 13-25 urte arteko neska-mutilek parte har dezakete. Izen-ematea egunean bertan.

29

KULTURA SAILA KASKOAN

11:00 Iurreta Selfie! Lehiaketa-Gynkana Selfie-rik onenak egiteko. 13-35 urte arteko neska-mutilek parte har dezakete. Izen-ematea egunean bertan.

GOIURIKO AMA NAGUSIEN ELKARTEA SAN PEDRO EGUNA XXXI. URTEURRENA

13:00 San Migel eleizan meza.
14:00 Bazkaria Gipuzkoana jabetxean, Iurretan.
17:00 Dantzaldia Nagusien etxean.
Patata-dantza. Informazio gehiago: Nagusien Etxea (Tel.: 946 818 176)

OHARRAK

Herri bibliotekaren berrantolaketa
lanak direla eta, biblioteca zerbitzua etenda dago.

Ekainaren 29an, 18:30etan
udako tailerren programaren
aurkezpena Ibarretxe Kultur Etxean.

Ibarretxe Kultur Etxeko udako ordutegia
Ekainaren 6tik aurrera Ibarretxe Kultur Etxea goizez irekiko da, 8:30etatik 13:30etara.

> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguziteneko 14:00ak arteko epea



> Amak ekainaren 20an urteak bete zituen, **Iredak** 26an 9 urte egingo ditu, eta **Martinek** 28an 6. Zorionak! Muxu bat aitaren partez.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
f Gozatu Gozategia

Zorionak, **Irati Ogiza Ruiz de Galarreta!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



> Atzo gure etxeko sorgiñek urtetxo bat bete zauen. Zorixonak, **Intza**, etxeko danon partez.



> Ekainaren 21ean **Oinatzen** 5 urte bete zituen. Zorionak etxeko guztien partez!

> EGURALDIA

ZAPATUA	19° / 13°	
DOMEKA	19° / 13°	
ASTELEHENA	20° / 10°	
MARTITZENA	22° / 15°	
EGUAZTENA	23° / 16°	
EGUENA	25° / 16°	



MIREN RODRIGUEZ
Elikagai gutxiago alferrik galtzeko

Zenbait ikerketaren arabera, Europan elikagai gehien alferrik galtzen duten herrialdeen artean seigarren lekuan ageri da Espainia. 2013. urteko azaroan, Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak “Elikagai gutxiago alferrik galtzeko Astea” egin zuen, “Elikagai gehiago, alferrik galtze gutxiago” estrategiaren barnean. On egin lelotzat hartuta, aurrezteko eta elikagaiei probetxua ateratzeko moduak proposatu zituen Ministerioak. Oinarritzko aholku batzuk eman zituen, eta hau ageri zen tartean: “Jatetxean jaten baduzu, eska ezazu neurrian, eta lasai eskatu janari hondarrak ontzi batean sar ditzatela etxera eramateko”. Ekimen horretan, itsasgarri bat ere atera zuten jatetxeetan jartzeko, honako mezu honekin: “Konpromisoa dugu elikagaiei probetxua ateratzeko. Eska ezazu etxera eramateko poltsa”. Ekimen horri jarraituz, HORECA kanala (Ostalaritza, Errestaurazioa eta Cateringa) lanean ari da jatetxeentzat gomendioak emateko: prozedura zehaztu bat edukitzea bezeroei janari hondarrak emateko; elikagaiak ontzi garbietan ematea; ez daitezela izan berrerabilgarriak eta ezta bezeroek ekarriak ere; ontzian idaztea janaria zer egun eta zer ordutan prestatu den; bezeroei gogoraraztea ahal bezain azkar gorde behar dutela janaria, elikadura arloko segurtasunak ezartzen dituen arauak jarraituta, hau da, hozkailuan eta ahal bada, janaria manipulatzeo argibideak ematea; nola gorde, nola garraiatu, eta berriz berotu.

> BOTIKAK

BARIKUA, 24 09:00-09:00	Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango	09:00-22:00	EGUAZTENA, 29 09:00-09:00
Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango	Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	Etxebarria Montevideo etorb. 2 - Durango
Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza	Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango	ASTELEHENA, 27 09:00-09:00	Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00	Navarro Artekalea 6 - Durango	Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango	09:00-22:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza	Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
ZAPATUA, 25 09:00-09:00	09:00-14:00	09:00-22:00	EGUENA, 30 09:00-09:00
Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango	Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	Navarro Artekalea 6 - Durango
Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza	09:00-22:00	MARTITZENA, 28 09:00-09:00	Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza
09:00-13:30	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango	09:00-22:00
Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango	DOMEKA, 26 09:00-09:00	Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango	Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta	09:00-22:00	
De Diego Intxaurrondo 22. - Durango	Goiria, Mari Carmen Sabino Arana 6 - Zornotza	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	

#gomendioak

artekalea 14, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

TRANA-MATIENA

Tel.: 94 681 43 85

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

“Erritmoa eta teknika behar dira, gorputz mugimendu asko dago-eta”

Bachata eta Kizomba dantza tailerrak eskaintzen dituzte; bihar erakustaldia egingo dute Plateruenan

> AKUILUA Aitziber Basauri
Bachata, Kizomba, dance-hall, dantza garaikidea... doinu latinoamerikar edo afrikarrek hartuko dute Plateruena, bihar. Noek eta Asierrek Bachata eta Kizomba eskolak ematen dituzte Durangon, eta urteko lana erakusteko 40-50 bat dantzari igoko dira ohol-tzara. Dantzarako erritmoa garatu egiten dela diote.

Noiztik duzue harreman hau Bachatagaz?
Noemi Perez: Sei urte gaz hasi nintzen, amagaz joaten nintzen dantza latino eskolak hartzera. Gero, Asier ezagutu nuen, eta dantza-bikotea izateko prestatzen hasi nintzen. Honetan aritzea erabaki ondoren, bikote legez trebatzeko, hainbat ikastaro eta master egin ditugu Espainian.
Asier Quintana: Noe ezagutzean hasi nintzen. Berak emandako ikastaro batean hasi, eta gustua hartu nion. Dantzarako gaitasuna nuela-eta, prest banengoen irakatsiko zidala esan zidan, eta halaxe hasi ginen. Hiru bat urtean ari gara.

Dantza latinoak irakasten dituzue, ezta?
N.P.: Astelehenetik eguenera ematen ditugu eskolak, Durangon. Hilean bari-riku baten, berriz, nahi duenarentzat

tailerra antolatzen dugu. Beste hainbat tokitan ere bagabiltza; Bilbon ere egin ditugu tailerrak. Hala



ere, hemen ez dago dantzatze-
 ra bakarrik irteteko ohiturarik.
A.Q.: Talde batez hasi ginen iaz, martitzenetan. Gazteak animatu gura genituen, eta aurretik dantzan ibilitakoak. Bachata sentsuala egiten dugu, eta gorputz mugimendu asko eskatzen ditu, gaitasun fisikoa eta erritmoa. Orain, lau egunetan ditugu eskolak, eta 60 bat lagun batu izan dira.

Ez gara dantzara irtetekoak...
N.P.: Horretan urte batzuk atzean gaude. Badaude dantzarako baino ez diren diskotekak, gazte beteta. Goizaldera arte egon zaitzke dantzan, eta ia ez duzu kontsumitzen. Oso giro ona sortzen da. Espainian —Andaluzian edo Alakanten— oso zabaldua daude. Dantza sozial hori zabaldu guran hasi ginen tailerrok.

Euskaldunak ez ei gara gerria mugitzekoak. Gutxiago mutilak...
N.P.: Txip-a aldatzen ari da. Orain urte batzuk Bachata dantzatuko zutela pentsatu ere egingo ez zutenak datoz. Behin hasita dena teknika da.
A.Q.: Ohikoena da, bai, mutilak falta izatea, baina, aldatuz doa.

Talderen batean izan ditugu mutilak, neskak baino gehiago. Mundu oso osasuntsua da.

Zer behar da Bachata sentsuala ondo dantzatzeko?
A.Q.: Erritmoa eta teknika. Gorputz mugimendu asko daude. Mutilak gidatzen du dantza, eta neskak horri jarraitzen dio. Neskak esandakoa ulertu dezana, teknika asko behar da; minik ez egiteko ere bai, gorputz mugimendu asko dira-eta.
N.P.: Dena dago oso lotuta; denak du bere zergatia. Teknikarik ez, ohiko bikotea ez duzunagaz ez dago ulertzetik.

Sentsualitatea dario...
N.P.: Momentu sentsualak dituen arren, hanken mugimendua du oinarri bachata tradizionalak. Urteekin fusionatuz joan da, mugimendu sentsualagotara joaz. Hala ere, dantzan zaudela, teknikaz eta dantzaz disfrutatzea baino ez duzu gogoan. Hori da ardura. Dantza sentsuala da, baina, ez sexuala.
A.Q.: Ez du reggaetoiagaz zerikusirik.

Dantza hauetarako gero eta espazio gehiago daude, ezta?
N.P.: Hala da. Dantza hauek modan hasi dira jartzen gazteen artean.

Zer dute Bachatak edo Kizombak besteek ez dutena?
N.P.: Engantxatu egiten dute. Lanik ez badugu, dantzara goaz! (barrez). Askotariko jendea batzen gara, harremanak sortzen ditugu, eta aurreiritziak alboratzen laguntzen du.

LAUHORTZA

ARITZ MALDONADO
 Kazetaria



Nara

Japoniako hiriburua izandakoa da Nara, 710-784 bitartean. Hiri turistikoa, ezaguna da, besteak beste, bertako sika oreinengatik (Cervus Nippon). Legendaren arabera, Takemikazuchi jaunkoia orein zuri horietako baten gainean iritsi zen bertara. Ordutik, animalia sakratutzat dituzte herrian, eta hiriko berdeguneetan aske ibili ohi dira.

Ez naiz jaunkoak gurtzearen zaleegia, baina abesti batek (arraroa, ezta?) eraman nau Japoniara. “Hallelujah” abesten du bertan gizon gazteak. Oreinak nola, berari ere horrela ibiltzea gustatuko litzaioke, libre, munduko edozein kaletatik. Izan ere, gustuko duen mutilarekin ezkontzekotan da bera.

Alabama eta Bovay ere aipatzen ditu, ia ahopean, baina ez kasualitatez. AEBetako estatu kontserbadorea da lehena; Alvan E. Bovay estatubatuarra alderdi errepublikarraren sortzaileetako bat zen. “Maitasuna da kolorek beroena” ohartarazten du. Errusiari, berriz, tximeletei hegaz egiten uzteko eskatzen dio.

Ametsak eta errealtate gordina, eskutik. Txanponaren bi aurpegiak.

Indarkeria islamistarekin nahastu nahi izan da egunotan, egiturazko biolentzia dena; LGTBQ komunitateko 50 lagun hilda, Orlandon (AEB). “Familia drama” legez deskribatzen dira egiturazko biolentzia horren ondorioak; lau emakumezko hil dituzte asteon Euskal Herrian. Eta bitartean, jarrera hauek normalizatzen dituzten medioak ditugu.

Saltoki erraldoi batzuen leloa nire eginez, gustura eraikiko nuke nire (gure) errepublika txikia. Txikia litzateke, baina eroso. Bertan, egunero liriateke ekainaren 28a edota maiatzaren lehena... bueno, isilduko naiz, ni ez nago kanpainan-eta.


CEPA DURANGO HHI (Helduen Hezkuntza)
 Doako irakaskuntza ofiziala
MATRIKULA


EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO

IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- I. GRADUA
- II. GRADUA
- III. GRADUA (DBHko graduatua)

IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA

- Gaztelania atzeritarrentzat.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa (hasiera-maila).

Matrikula egiteko ordutegia:

Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00. Ostiraletan: 09:00-13:00



MATRIKULA ZAITEZ
946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA: ekainaren 15etik 30era eta irailaren 2tik 16ra